Sobre el pueblo de Ilundain (Navarra), en el alto donde se encuentran las ruinas del antiguo castillo de Irulegi, detectamos un asentamiento correspondiente a un poblado de la Edad del Hierro. Posee una amplia superficie fortificada artificialmente en parte.

También en Navarra y en término del pueblo de Girgillano, controlamos la existencia de otro poblado correspondiente a los mismos momentos, en el lugar de San Cristóbal. Presenta unas estructuras características en cuanto a aterrazamientos defensivos y otros. Por sus proximidades discurre una antigua calzada empedrada en buen estado de conservación.

En tierras navarras muy próximo a los límites alaveses, en jurisdicción de Viana, localizamos un asentamiento en altura del tipo de poblado, con algunos materiales que lo aproximan culturalmente a un Bronce Final/Hierro Antiguo, del tipo de Meseta.

Por sus características estructurales y geográficas queremos destacar el alto de Santa Marina de Gezuri, en Orozko (Bizkaia) que presenta las fórmulas habituales en los poblados de la Edad del Hierro. Posteriores sondeos determinarán este supuesto.

Como hallazgos fortuitos se pueden destacar los siguientes:

En el ensanche de la carretera L-121, entre el cruce de Faido y Faido, al desmontar los taludes de ambos lados de la carretera se pusieron al descubierto unas amplias manchas de tierras negras en las que recuperamos algunos fragmentos cerámicos. Parecen corresponder a fondos de cabaña.

También otras obras de ampliaciones viarias, paralelas a la N-1 en término de Nanclares de la Oca, frente a

A.1.3.2. Burdin Aroko Aztarnategiak

Armando Llanos Ortiz de Landaluze zuzendua.
Berak finantzatua.

Arabako lurralde historikotik kanpoan baina ondoko eremuetan ikertzeko gogoak eraginda, aztarnategi multzo bat aurkitu dugu inguruko lurraldeetan eta emendatu egin da, horrenbestean, aurrez ezagutzen genituenen zerrenda.

Aztarnategi batzuk aurkikuntza batzuetako iharduera programatu baten ondorio izan badira ere, ustekabeen aurkitu ditugu besteak.

Azken Brontze Aroaren eta Burdin Aroaren arteko une kulturaletan eraikitako finkamenduak daude lehenengoan artean.

Burdin Aroko bizileku bat atzeman genuen Ilundain (Nafarroa) herriaren gainean, Irulegiko gaztelu zaharren hondakinak ageri diren tontorrean. Gizonak gotorturiko hedadura zabala ageri du parte batean.

Nafarroan ere bai, Girgillano udalerrian San Kristobal deritzan lekunean, garai berari zegokion beste finkamendu bat aurkitu genuen. Defentsarako terrazamenduak eta bestelakoak ageri ditu egitura gisa. San Kristobaletik hurbil, kontserbazio egoera onean dagoen galtzada zaharra igarotzen da.

Arabako mugetatik gertu dauden Nafarroako lurraldean, Bianako udalerraren barnean, gain batean kokaturiko bizileku bat aurkitu genuen, Goi-Lautadakoen motakoa, Azken Brontze Aroko/Burdin Aro Zaharreko materialak ageri dituena.

Orozkoko (Bizkaia) Gezuriko Santa Marina izeneko gaina nabarmendu nahi dugu, bertako egitura eta geografía ezaugarri bereziengatik. Burdin Aroko bizilekuen ezaugarriak ditu. Burutu beharreko zundaketek argituko dute uste hau.

Honako hauek ditugu ustekabeen aurkikuntza aipagarri enak:

L-121 errepideko zabalgunean, Faidorako gurutzebidetean eta Faido herriaren artean, lur iluneko eremuak geratu ziren agerian errepidearen alde bietako ezpondak erauztean, eta zeramika zati zenbait jaso genuen bertatik. Etxola baten hondoko hondakinak dirudite.

Lur iluneko eremu zabalak utzi zituzten beste errepide-zabaltze lan batzuek ere; hala nola Langraitzen, Bi-

la empresa Bi-Bat, S. A. pusieron al descubierto otras largas manchas de tierras oscuras en las que se pudieron recoger fragmentos cerámicos. Parecen tener el mismo carácter de fondos de viviendas.

Ya en el término municipal de Campezo, se detectaron dos lugares de habitación al aire libre. Uno en el Barranco de Istorea, junto al cauce del río en una zona ligeramente elevada. En una zona de características tierras negras, se recogieron algunos fragmentos cerámicos y líticos. Algo parecido se detectó en una gravera existente sobre el antiguo monasterio de Piérola.

A.1.3.3. Valle de Valdegobia

Francisca Sáenz de Urturi.
Subvencionada por la Diputación Foral de Álava.

En este valle se ha seguido con el plan de prospecciones establecido hace años, para el estudio de los asentamientos prehistóricos, preromanos, romanos y medievales del valle de Valdegobia y alrededores (aquí se engloba la zona comprendida en la cuenca de los ríos Omecillo y Tumecillo), elaborado por varios miembros del Instituto Alavés de Arqueología. Durante este año se continuaron con la revisión de zonas susceptibles de ser yacimientos, y con la revisión de yacimientos ya conocidos con el fin de comprobar datos para su completo estudio y catalogación.

Siguiendo estas premisas se prospectaron los siguientes lugares:

Zona de Espejo: yacimientos romanos de *El Llano*, *Barcabao*, *Las Ermitas*.

Zona de Angosto: abrigos de las márgenes del Tumecillo.

Poblado de Medropio.

Respondiendo a informaciones recibidas se han revisado también otras zonas de la provincia: Zona del lago de Arreo, pistas forestales de Ribera Alta, Restos medievales de la Rioja.

Bat S.A. enpresaren parean eta N-1 errepide nagusiaren paraleloan, agerian geratu zen eremu orban beltza. Zeramika zatiak aurkitu genituen bertan eta bizileku batzuetako hondoak ziruditen.

Kanpetzun, haize zabaleko bi bizileku atzeman genituen. Horietariko bat Istorako Amildegian aurkitu genuen, ibaiaren ibilguaren ondoan, gain txiki batean. Harritzko eta zeramikazko puskak jaso genituen lur iluneko eremu batean. Antzeko zerbait atzeman genuen Pierolako monastegi zaharraren gainean dagoen legar hobi batean.

A.1.3.3. Gaubeako Harana

Francisca Saenz de Urturik zuzendua.
Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

Duela zenbait urte Arabako Arkeologia Institutuko kide batzuek prestatu zuten miaketa plangintzari jarraia emanez, Gaubeako harana eta inguruko (Omecillo eta Tumecillo ibaien arroek hartzen duten eremua barne) historiaurreko, erromatarren aurreko, erromatarren garaiko eta Erdi Aroko finkamendu posible batzuk miatu genituen. 1991. urtean zehar aztarnategi izan litezkeen eremuak miatu eta agerian gelditu diren aztarnategi ezagunak aztertu genituen, haiei buruzko datu gehien jaso eta katalogatzeko.

Ondoko leku hauek miatu genituen, Helburu horiei jarraiki:

Espejo aldean: *El Llano*, *Barcabao* eta *Las Ermitas* lekuneetako aztarnategi erromatarrek.

Angosto aldean: Tumecillo ibaiaren ertzetako grizpeak.

Medropioko bizilekua.

Jasotako berriei erantzunik, herrialdeko beste inguru batzuk ere miatu genituen: Arreoko aintziraren inguruak, Erribera Goitiako oihanbideak eta Errioxako Erdi Aroko hondakinak.

A. 1.3.4. Yacimientos de época romana
(Llanada Oriental)

Dirigida por Aitor Iriarte Kortazar.
Subvencionada por la Diputación Foral de Álava

A lo largo de los últimos meses del año 1991, hemos llevado a cabo la segunda campaña de prospección visual de los yacimientos de época romana de la Llanada Oriental alavesa. Estos trabajos se hallan integrados dentro del programa general de prospecciones del Instituto Alavés de Arqueología.

A.1.3.4. Erromatarren garaiko Aztarnategiak
(Ekialdeko Lautada)

Aitor Iriarte Kortazarrek zuzendua.
Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

1991ko azken hilabeteetan, erromatarren garaiko aztarnategietako bigarren miaketa kanpaina bideratu genuen Arabako Ekialdeko Lautadan. Lan hauek Arabako Arkeologia Institutuko miaketa plangintza orokorren barne daude.



San Juan (Mezkia). Vista general del yacimiento.

San Joan (Mezkia). Aztarnategiaren ikuspegi orokorra.

En este resumen únicamente comentaremos los resultados positivos, que continúan con su tónica de parquedad, y que en esta campaña se han reducido a localizar una nueva zona arqueológicamente fértil en el yacimiento de Angostina (Alegría) y a localizar, situar y delimitar un nuevo yacimiento en el término de San Juan (Mezkiá). Aunque queda fuera de los límites cronológicos fijados para la investigación, debido a su importancia, hemos situado y delimitado el despoblado medieval de Ayala (Alegría).

ANGOSTINA.- (Ver informe de 1990) A unos 25 metros al Noroeste de la zona del edificio termal, se encuentra una mancha de tierra oscura, de unos 5x9 metros, dentro de la cual se recogen materiales.

Únicamente aparecen fragmentos de recipientes cerámicos (T.S.H. y común) romanos. Aunque, desgraciadamente, ninguno permite identificar forma, por pastas y engobes parecen poder encuadrarse en época Altoimperial, esto es, en un período sincrónico al de la utilización del edificio termal. Merece destacarse el dato negativo de la no aparición de ladrillos dentro de la mancha.

Básicamente, no se modifican las conclusiones expuestas tras la campaña anterior. El yacimiento no gana en riqueza aparente, aunque sí en complejidad, con la aparición de un nuevo pequeño edificio de escasa entidad (o de un basurero), próximo a las termas.

SAN JUAN.-El yacimiento está situado en la ladera Sur de un pequeño cerro en cuya cima se ubica la ermita de San Juan, actual capilla del cementerio del pueblo de Mezkiá. Por el Oeste, al pie de la colina (que forma escarpe por ese lado) discurre el arroyo Magalondo y, a unos 500 metros al Norte, lo hacía la calzada Astorga-Burdeos, a través del propio pueblo de Mezkiá.

Aunque aparecen materiales romanos dispersos por los alrededores, la única concentración apreciable se da en el interior de una pequeña (de unos 2x5 metros) mancha oscura de tierra carbonosa.

Los materiales recuperados han sido exclusivamente cerámicos, escasos y rodados: T.S.H. (sólo se reconoce un fragmento de pared de 37 decorada de estilo de círculos) y cerámica común (a destacar un fragmento de pared de un gran recipiente de almacenaje). Todos ellos son atribuibles, por sus características de pastas y engobes, a un momento Altoimperial.

En conclusión, nos encontramos ante un yacimiento muy pequeño, constituido probablemente por un sólo edificio de construcción muy pobre (una minúscula granja aislada), situado en un buen emplazamiento agrícola, cerca de la calzada romana (aunque no dominándola).

Laburpen honetan emaitza positiboak baizik ez ditugu aipatuko eta hauek urri izan dira: Angostinako (Dulantzi) aztarnategian eremu arkeologiko emankor berri bat atzeman genuen eta Mezkiako San Joan deritzan lekunean, aztarnategi berri bat. Miaketa plangintzan adierazitako kronologiatik at badago ere, Aialako (Dulantzi) Erdi Aroko herri hustua kokatu eta mugatu dugu.

ANGOSTINA.- (Ikus 1990eko txostena) Termategitik 25 metrotara, ipar-mendebaldean, 5 x 9 bat metrotako sail lur iluna aurkitu eta materialak jaso genituen bertatik. Zeramikazko ontzi zati erromatarrek (T.S.H. eta arruntak) baizik ez genituen atzeman. Zati batek ez du bere moldeak identifikatzeko biderik eskaintzen, baina eginak dau den ore eta engobeei erreparatuz gero, Goi-Inperioko garaian dagozkiola dirudi, hots, termategia erabiltzen zen garai berekoak genituzke. Aipagarria da lur iluneko eremu honetan adreilurik agertu ez izana.

Oro har, ez dira aurreko kanpainaren bukaeran azal dutako emaitzak aldatu. Aztarnategia itxuraz aberatsagoa ez bada ere, konplexuago bihurtu da termategitik hurbil eraikuntza txiki apal bat (zabortegia agian) atzeman baitugu.

SAN JOAN.-Aztarnategia San Joan ermita ageri den muino txiki baten hegoaldeko magalean dago. Mezkiá herriko hilerriko kapera da San Joan ermita. Mendebaldetik, malkarraren ondotik, Magalondo erreka igarotzen da eta iparraldera, 500en bat metrotara, Astorgatik Bordelera zihonan galtzada ageri da, Mezkiako herrian berean barrena.

Inguruetan, han eta hemen barreiatuak, material erromatar batzuk atzeman baditugu ere, karbono lur iluneko sail txiki batean (2 x 5 m) gertatu da multzo adierazgarri bakarra.

Zeramikazko material urri eta leunak baino ez ditugu aurkitu: T.S.H. (37 moldeko horma zati bat, dekorazio zirkularrak dituena) eta zeramika arrunta (aipagarria da gaiak biltzeko erabiltzen zen ontzi handi bateko horma zati bat). Material hauek ageri dituzten ore eta engobeei erreparatuz gero, Goi-Inperiokoak direla esan genezake.

Bukatzeko zera esan dezagun: aztarnategi txiki baten aurrean gaude, eraikuntza guztiz apal baten aurrean seguruenik (bazterretxe xume bat agian?). Aztarnategia nekazal eremu emankor baten erdian dago, galtzada erromatarretik hurbil (bazter halaz ere).

A.1.4. OTRAS ACTIVIDADES ARQUEOLÓGICAS

A.1.4.1. Cartografiado de la muralla de Iruña

Dirigido por M. Luisa Palenques Salmerón.
Subvencionado por la Diputación Foral de Álava.

Un año más se han continuado las labores de cartografiado de la muralla, con lo que se da por terminada la primera fase de los trabajos de cartografiado del oppidum Romano de Iruña, fin último del proyecto, dirigido a una mejor documentación de este interesante yacimiento.

En esta campaña se ha contado con la colaboración de algunos alumnos y profesores del primer curso de la Escuela de Ingenieros Técnicos en Topografía, con los cuales esperamos seguir contando en las sucesivas campañas.

Por tanto, el desarrollo de este proyecto, junto a su primer y principal objetivo que es el de documentar el yacimiento de Iruña, está ayudando también al establecimiento de vías de colaboración entre los equipos de investigación arqueológicos y los ingenieros técnicos en topografía, cuya participación resulta a la vez tan deseable como difícil, dado el escaso número de técnicos de este tipo en el País Vasco y del enorme desconocimiento que éstos tienen del mundo de la arqueología.

Así pues, mediante el establecimiento de una colaboración con la Escuela de Ingenieros Técnicos en Topografía, de reciente implantación, esperamos que se puedan abrir las puertas a una mayor colaboración de este tipo de técnicos en los equipos interdisciplinares dedicados tanto a la investigación arqueológica, como a la defensa del Patrimonio Arqueológico.

A.1.4. BESTE IHARDUERA ARKEOLOGIKO ZENBAIT

A.1.4.1. Iruñako Harresiaren Kartografiaketa

M. Luisa Palenques i Salmeronek zuzendua.
Arabako Foru Aldundiak subentzionatua.

Aurten ere harresiaren kartografiaketa lanei eman diegu jarraia eta Iruñako oppidum erromatarreko kartografiaketa lanen lehen fasea burutu dugu, honenbestean. Aztamategi interesgarri honi buruzko dokumentazioa hobetzea zen proiektu honen xede nagusia.

Kanpaina hau gauzatzeko Ingeniari Teknikoen Eskolako Topografia saileko lehenengo mailako ikasle eta irakasleen laguntza izan dugu eta beren kolaborazioa espero dugu aurrerantzean ere.

Hortaz, proiektu honen helburu nagusia Iruñako aztarnategia dokumentatzea bada ere, topografiako ingeniari teknikoek eta arkeologia ikerketa lanak burutzen dituzten taldeen arteko lankidetzak gero eta sakonago egiten lagundu du proiektuak. Ingeniari teknikoek partehartzea desiragarria bezain zaila da, Euskal Herrian dauden teknikariak gutxi izateaz gainera, nagusi baita, daudenen artean, arkeologiaren inguruan deus ere ez dakitenean kopurua.

Ingeniari Teknikoen Eskolan sortu berri den Topografia saileko ikasle eta irakasleekin harremanak sendotu ondoren, tekniko hauen eta Ondare Arkeologikoaren babesean nahiz ikerketa arkeologikoetan ari diren taldeen arteko lankidetzak giroa areagotzea espero dugu aurrerantzean.

A.2. BIZKAIA / BIZKAIA

A.2.1. EXCAVACIONES

A.2.1.1. Cueva de Santa Catalina (Lekeitio)

IX Campaña de excavaciones
Dirigida por Eduardo Berganza
Subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia.

El área de trabajo donde centramos las actividades de la presente campaña es la abarcada por los cuadros C8, B8 y A8 ya que era una zona que habíamos mantenido sin tocar en la campaña anterior para poder servirnos de la misma como control de la estratigrafía que habíamos determinado. En ella pretendíamos establecer si el momento cultural magdaleniense final caracterizado por una tierra oscura, con abundantes evidencias de una actividad continuada de combustión y con numerosos restos de conchas y caparazones de moluscos y crustáceos, era único o se podían distinguir etapas distintas dentro de él, como así lo apuntaban ciertos datos de la tecnología industrial del sílex y la aparente disminución de conchas, lo que supondría un cambio en los hábitos alimenticios. Igualmente pretendíamos llegar a delimitar en toda la extensión del área de trabajo la superficie del nivel infrapuesto, que ya habíamos detectado en la zona exterior de la cueva y que habíamos denominado provisionalmente nivel III.

En líneas generales se pudo establecer una estratigrafía compleja no sólo en profundidad sino en exten-

A.2.1. INDUSKETAK

A.2.1.1. Santa Katalinako Lezea (Lekeitio)

IX. Indusketa kanpaina
Eduardo Berganzak zuzendua
Bizkaiko Foru Aldundiak subentzionatua.

Aurtengo kanpainako iharduera burutu dugun esparruak C8, B8 eta A8 laukiak hartu ditu nagusiki. Aurreko kanpaina ez genuen alde hori ukitu, bertako estratigrafia zehaztu genuen, hobeki kontrolatzearen. Erreketa zantzuz beteriko lur iluna eta molusko nahiz krustazeo oskol eta geruza ugari ageri ohi ditu Madalen Aroko azken garaiko kulturaldiak eta jakin nahi genuen garai hari zegokion aldia bakarra zen ala, sukarhen teknologiar buruzko datu batzuek eta oskolen murrizteak salatu bezala, elikadura ohituretan halako aldakuntza nabaririk geratu zen une hartan. Nahi genuen, halaber, lan eremu osoko azpiko mailaren hedadura mugatu. Azpiko maila hau zehaztuta geneukan lezearen kanpoaldean eta III. maila izena emana genion behin-behingoan.

Oro har, estratigrafia konplexu bat itxuratu ahal izan genuen sakoneran eta zabalera osoan. C8 laukiaren

sión. En las zonas próximas al cantil del fondo del cuadro C8, cuadrantes 1 y 2, se detectaron una sucesión de costras cenicientas de color grisáceo alternando con otras más finas carbonosas o de colores rojizos producto evidente de reiteradas actividades de cremación en el lugar. Estas costras llegaban a ser tan compactas que, en ocasiones, era muy difícil su extracción.

Los cuadrantes restantes de dicho cuadro así como los primeros, y más próximos a ellos, del cuadro B8 presentaban una tierra cenicienta muy suelta donde no se veía tan clara esa sucesión de capas de diferentes colores. Por último en la parte más exterior, cuadrantes 3 y 4 del B8 y 1 y 2 del A8, la tierra era más compacta y rojiza.

Todo hace pensar que se trata de áreas de combustión que en las zonas más próximas al lugar donde se debieron producir, cuadrantes 1 y 2 del C8, son más compactas y espesas mientras que en su entorno se depositan las cenizas y tierras alteradas por cremación formando una especie de círculo más o menos regular.

La zona donde los restos de cremación son más espesos está ligeramente desplazada hacia la pared izquierda de la cueva en relación a las grandes áreas de combustión suprapuestas, lo que podría hacernos pensar en una confirmación de la hipótesis con la que partíamos al comienzo de nuestra campaña de excavaciones, aunque tampoco se deben sacar conclusiones excesivas de este hecho ya que en ambos casos estas áreas de combustión son muy sencillas y no presentan ningún tipo de preparación del terreno o estructura que las delimite. Se trata simplemente de fuegos realizados directamente sobre el suelo.

MATERIAL RECUPERADO

a) *Industria*

Los restos industriales recogidos durante nuestros trabajos de excavación han sido numerosos y podemos apuntar que debió ser frecuente el trabajo de talla y arreglo de útiles en sílex a juzgar por la cantidad de núcleos y otros desechos de las actividades mencionadas.

El utillaje lítico se compone fundamentalmente de piezas que los estudios traceológicos suelen relacionar con las actividades de caza, como son laminillas y puntas de dorso que, con una gran variedad de formas y tamaños, llegan a representar más de la mitad del conjunto. A ellas hay que añadir, aunque en una proporción sensiblemente menor, raspadores, buriles, truncaduras o láminas retocadas.

gibeles ertzaeren inguruko aldeetan, 1. eta 2. koadranteetan, gris koloreko errauts-geruza batzuk agertu ziren, leku hartan egin ziren su ugariak utzitako kolore gorriko geruza karbonotsu batzuen tartean. Geruza hauek oso trinkoak ziren zenbaitetan, eta zail gertatzen zen horrelakoak azalera ateratzea.

Lauki horretako gainerako koadranteetan eta hurbil zeuden B8 laukikoetan, errauts-lurra ageri zen, harroharroa, eta ezin zen kolore desberdinetako geruza mailaketa hori bereizi. Azkenik, kanpo aldera zeuden koadranteetan, B8-ko 3. eta 4. eta A8-ko 1. eta 2.etan, lurra trinkoago eta gorriagoa zen.

Sutondo eremu baten aurrean geundeke, itxura guztien arabera. Su egingo zen aldeetatik hurbilen dauden koadranteak, C8-ko 1. eta 2. koadranteak, trinkoago eta lodiago ageri diren neurrian, ezarriko ziren errautsak eta suak ukituriko lurak inguruko aldeetan. Molde honetako lurrek sutondoaren inguruko zirkulu ia erregularra osatzen dute.

Suteen hondakinak trinkoago ageri diren gunea lezeko ezker hormari begira ageri da, gaineko sutondoak ez bezala. Datu honek indusketa kanpainaren hasieran aurreratu genuen hipotesia berresten bazuen ere, ezin da honetatik halako ondorio borobilak atera, bi aldeetako sutondoek, oso ximpleak izateaz gainera, ez baitute eremua horretarako prestatu edo mugatu zelako aztarnarik eskaintzen. Lur gainean eginiko suak lirakeke, besterik gabe.

JASOTAKO MATERIALA

a) *Tresneria*

Asko izan dira indusketa lanetan jasoriko tresneria hondakinak. Aurkitu den hondakin kopuru handiak salatzen duen bezala, ugari dira taila lanak eta sukarriz moldaturiko tresnak.

Harrizko tresneria, azterketa trazeologikoen ehize iharduerarekin lotzen dituzten piezek osatua da nagusiki; multzo horretako piezen erdia baino gehiago molde eta neurri anitzeko xaflatxoak eta dorso-puntak dira. Hauez gainera, askoz ere proportzio txikiagoan agertu dira karraskailuak, zizelak, trunkadurak edota landuriko xaflak.

La industria ósea ha sido muy escasa, reduciéndose a un punzón de hueso fabricado sobre una astilla de hueso aguzada y pulimentada en todo su contorno.

b) Fauna

Si bien ha sido muy importante la cantidad de fragmentos óseos recuperados, no podemos hacer una valoración tafonómica de los mismos hasta no disponer de un estudio. La mayor parte parece seguir correspondiendo a ungulados de tamaño medio, fundamentalmente ciervo, y siguen siendo abundantes los huesos de ave.

Han desaparecido prácticamente las conchas de moluscos o los restos de otras especies litorales con lo que parece que nos encontramos ante el momento de comienzo del marisqueo de la costa.

A.2.1.2. **Castro de Berreaga** (Mungia-Zamudio)

III Campaña de excavaciones
Dirigida por Miguel Unzueta Portilla
Financiada por el Museo Arqueológico, Etnográfico
e Histórico Vasco.

Continuando con el proyecto de creación de un modelo histórico que permitiera caracterizar el componente indígena pre-romano mediante el estudio de las formas de ocupación del suelo y de los ajuares asociados a dichos asentamientos, se han continuado los trabajos de campo en el Conjunto Arqueológico del monte Berreaga (Mungia-Zamudio, Bizkaia).

La tercera campaña de excavación en el castro de Berreaga, de cuatro meses de duración, se ha centrado en el estudio del sistema defensivo mediante el análisis de estas estructuras (muralla y foso) en dos puntos de su recorrido, basándose en el sondeo estratigráfico. Así se ha podido comprobar la técnica de construcción, sus fases y restauraciones en dichos puntos. También se ha continuado, hasta concluir, la excavación de las estructuras de habitación de la terraza Este. Con esta tercera campaña se debe dar por concluida la excavación del yacimiento debido a la imposibilidad de acceder a otras parcelas del mismo.

Oso hezurki gutxi agertu da, ale bakarra hain zuzen ere: zorrozutako hezur-ezpal batez landu zen eztena, azaleko aldea leundua.

b) Fauna

Jaso den hezurki kopurua garrantzitsua izan arren, ezin egingo dugu haiei buruzko balorapen tafonomikoa, azterketa bat burutu arte. Gehienak neurri ertaineko ungulatuen hondakinak dirateke, orinenak nagusiki, eta ugari dira, halaber, hegaztien hondakinak.

Moluskoen oskolak eta itsasertzeko beste espezie batzuetako hondakinak desagertu dira ia erabatean. Badirudi kostaldeko itsaskien kontsumoa hasi zela garai honetan.

A.2.1.2. **Berreagako Kastrea** (Mungia-Zamudio)

III. Indusketa kanpaina
Miguel Unzueta Portillak zuzendua
Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira
Museoak subentzionatua.

Zoruaren okupazio era desberdinei eta finkamendu horiei loturiko tresneriari buruzko azterketa bitarteko nagusia dugularik betiere, erromatarren aurreko populazioaren ezaugarriak zertan ziren ezagutzen lagunduko lukeen eredu historiko bat sortzeko proiektuan aurrera jo dugu eta segida eman diegu Berreaga mendiko (Mungia-Zamudio, Bizkaia) Multzo Arkeologikoan hasitako lanei.

Berreagako kastroan buruturiko hirugarren indusketa kanpaina lau hilabetez luzatu da eta defentsa-sistemaren azterketa izan du helburu nagusi. Zundaketa stratigrafikoaren bidez, egitura bi aztertu dira horretarako, harresia eta inguruko fosoak, eraikuntza horietako bi puntu nagusitan. Halatan ikusi ahal izan ditugu puntu horietako eraikuntza teknika, faseak eta errestrukturazioak, jarraia eman diegu, bukatu arte, ekialdeko terrazako bizilekuko egituren indusketari. III. kanpaina honetaz amaitutzat jo beharko litzateke aztarnategiko indusketa, bertako beste eremu batzuetara sartu ezina dela eta.

A.2.1.3. Asentamiento romano de Aloria (Arrastaria, Álava - Orduña, Bizkaia)

II Campaña de excavaciones
Dirigida por Juan José Cepeda
Subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia.

La II Campaña de excavación en el asentamiento romano de Aloria ha tenido como objetivo la delimitación gradual de las construcciones localizadas en la campaña anterior así como la prosecución de los trabajos arqueológicos en aquellas zonas ya exhumadas en las que no se había conseguido alcanzar los niveles estériles. Estos trabajos han afectado fundamentalmente a la zona denominada inicialmente como "pasillo", que corresponde a un camino sin pavimentar que discurre entre los recintos "Z" y "A" - "B", delimitados previamente.

En total han sido trece cuadros de 5 x 5 mts. los que han sido objeto de nueva excavación, mientras la continuación de trabajos anteriores ha afectado a un total de cuatro cuadros de las mismas dimensiones.

I. Excavación del camino de tierra no pavimentado Cuadros 2-3, 2-4, 2-2, 6-4 y 5-3.

La excavación del relleno arqueológico correspondiente a este sector ha proporcionado una visión mucho más completa de la evolución cronológica del lugar -todo el material recuperado en la zona abierta el año 1990 corresponde a época imperial romana, comprendida entre los siglos II y III d. C- así como de la disposición topográfica original del conjunto. Este camino, que sigue en ligera pendiente una dirección N.E. - S.W., cuenta con una drenaje central que sirvió para canalizar las aguas procedentes de los tejados de las construcciones vecinas así como las procedentes de zonas situadas en cotas superiores. El drenaje en su estado actual se presenta colmatado por limo y arena mezclada con piedras de construcción procedentes del derrumbe de los recintos levantados en las inmediaciones. El relleno arqueológico es especialmente rico en material cerámico y restos óseos animales muy fragmentados, desperdicios de alimentación correspondientes en su mayor parte a bóvidos. Una primera valoración del conjunto de restos cerámicos recuperados nos permite pensar en un período de utilización comprendido entre los siglos II y III d. C. El estudio de la cerámica fina, **terra sigillata hispánica**, permite comprobar la presencia mayoritaria de formas y

A.2.1.3. Aloriako finkamendu erromatarra (Arrastaria, Araba - Urduña, Bizkaia)

II. Indusketa kanpaina
Juan Jose Cepedak zuzendua
Bizkaiko Foru Aldundiak subentzionatua.

Aloriako finkamendu erromatarrean buruturiko II. indusketa kanpainak aurreko kanpainan aurkituriko erai-kuntzen mugaketa graduala egin da eta jarraia eman zaie arkeologi lanei maila elkorra oraino atzemana ez zen eremu harrotuetan. Lan hauek "korredore" izeneko aldean burutu dira nagusiki, aurrez mugatu ziren "Z" eta "A"- "B" barrutien artean zihoan zoladurarik gabeko bide batean hain zuzen.

5 x 5 m-ko hamahiru lauki berri induskatu dira orotara. Neurri bereko lau lauki landu dira, bestalde, aurreko lanei jarraia emateko lanetan.

I. Zoladurarik gabeko lurrezko bidearen indusketa. 2-3, 2-4, 2-2, 6-4 eta 5-3 laukiak.

Sektore honi zegokion betegarri arkeologikoaren indusketak lekuaren bilakaera kronologikoari buruzko ikuspegi askoz ere osoagoa eskaini du -1990. urtean ireki zen eremuan jaso zen material guztia Erromako inperioaren garaikoa da, K.o. II. eta III. mendeen artekoa- eta multzoak jatorrian zuen topografia ezagutzeko bidea erraztu du. Ipar-ekialde - Hego-mendebalde nora-bideko malda apal batean luzatzen den bide honen erdian ubide bat ageri da, aldameneko eta gainaldeko etxeetako teilatuetatik zetozen urak jaso eta bideratzen zituena. Egun, limoak eta ingurua hartan jaso ziren erai-kuntzetako hondakinek, hondarrak eta harriek estaltzen dute ubidea. Betegarri arkeologikoa aberatsa da zeramika eta animalien hezurrei dagokienez. Hezurrak guztiz zatiturik ageri dira eta janari hondakinak dira, behikien hezurak nagusiki. Jaso ditugun zeramika hondakinei eginiko lehen begiratuaren arabera, K.o. II. eta III. mendeetan erabilitako egituren aurrean geundeke. Zeramika finaren azterketak **terra sigillata hispánica** motako ekoizpenak zer nolako aldi eta molde aldaketak izan dituen utzi du agerian: molde itxien nagusitasuna (Ritt. 8 eta Drag. 37), arrosatez beteriko zirkuluz dekoratuak, eta 15/17 moldeko plater zabal oin txikidunen presentzia.

decoraciones evolucionadas dentro de la periodización de este tipo de producción: dominio de las formas cerradas (Ritt. 8 y Drag. 37), decoradas estas últimas con motivos de círculos rellenos de rosetas, y presencia de platos de forma 15/17 muy abiertos, con pies poco pronunciados. De forma complementaria, la ausencia de elementos característicos de las producciones del siglo I, como son las decoraciones a la barbotina o los motivos en ruedecilla, ayudan a situar la cronología de ocupación de este sector en un momento post-flavio.

Es de destacar la aparición, durante la excavación de un nuevo sector del camino en el cuadro 5-3, de un amontonamiento de **tegulae** e **imbrices** muy fragmentados procedentes sin duda del robo de los materiales de cubrición de las construcciones circundantes. Su localización en una zona que presenta un último nivel de ocupación romana de los siglos IV y V d.C. permite situar este hecho con posterioridad a estas fechas.

II. La delimitación del recinto Z

Cuadros 7-4, 6-3 y 6-4.

La excavación de esta zona ha permitido igualmente delimitar en su lado norte la construcción compartimentada que fue hallada en 1990. El cierre de este recinto se realizó con dos muros levantados de forma poco cuidada e irregular, sin apenas cimentación, que delimitan una estancia pavimentada originalmente con **caementum**. Esta estancia, denomina Z.5, presenta un amplio ingreso que originalmente debió estar protegido por un portón de madera. El carácter poco cuidado y la propia irregularidad de la planta hacen pensar en un uso complementario de esta habitación con respecto al núcleo del recinto Z, al que debió servir de almacén.

Los nuevos cuadros excavados no alteran la cronología propuesta para este conjunto de habitaciones, cuyo uso se documenta en los siglos II y III d. C.

III. Sector de nueva apertura

La zona de nueva excavación corresponde en su mayor parte a una banda situada en el lado norte de la cuadrícula, lo que ha permitido localizar dos nuevas construcciones que se sitúan en las márgenes del camino de cantos y canalización de agua, documentados parcialmente en la I Campaña de excavación. El camino de cantos presenta en esta zona un trazado más irregular de lo que permitían suponer los escasos restos hasta entonces conocidos. La nueva superficie exhumada per-

Guzti honen osagarri, I. mendeko bereizgarririk agertu ez izanak, hauxe da barbotinazko dekorazioak eta gurpilezko motiboak agertu ez izanak, finkamendu honetako kronologia flaviotarren ondoko une batean kokatzeko arrazoiak eskaintzen ditu.

Aipa dezagun **tegulae** eta **imbrices** izeneko teilan metaketa bat azaldu zela, 5-3 laukian bideko sektore berri bat induskatzen ari ginela. Oso zati txikiak ziren, inguruko eraikuntzak estaltzen zituen materialaren lapurreta baten hondarrak dudarik gabe. K.o. IV. eta V. mendeetako okupazio erromatarraren aztarnak nagusi diren eremu batean aurkitu izanak zera adierazten du, metaketa hori ondoko urteetako dela.

II. Z barrutiaren mugaketa.

7-4, 6-3 eta 6-4 laukiak.

Eremu honetan eginiko indusketari esker zehaztu ahal izan dira 1990. urtean aurkitu zen gelatan banatuhko eraikuntza honetako iparraldeko mugak. Modu trakets irregular batean eta zimenturik gabe altxaturiko bi murrak ixten dute barruti hau eta **caementum** harrizko zoladura duen gela bat mugatzen dute. Z.5 izena duen gela honek jatorrian zurezko ate handi batek babestu zuen sarrera zabal bat dauka. Plantako izaera trakets eta irregularrak zera adieraziko luke, gela hau Z barrutiko osagarri bat baizik ez zela, biltegi gisa erabiltzen zen gela alegia.

Induskaturiko lauki berriek ez dute gela multzo honentzat proposatu zen kronologia aldarazten. K.o. II. eta III. mendeetan erabiliko ziren gela hauek.

III. Kanpaina honetan irekitako sektorea.

Induskatu berri den eremua laukiaren iparraldean dagoen zerranda bati dagokio nagusiki. Bi eraikuntza berri aurkitu dira, harkoskoak eta ubidea dituen bidearen bi aldetetara. I. indusketa kanpainen sumatu zen eraikuntza hauen presentzia. Bide harkoskodunak ordura arte ezagutzen ziren hondakin gutxi haien arabera pentsatu baino trazatu bihurriagoa zuen. Agerian utzitako azalera berriak, bestalde, zoladuraren nolakotasunari buruz aurretiaz esandako guztia berresten du, hon-

mite confirmar por otra parte cuanto se dijo anteriormente sobre el modo en el que se realizó la pavimentación, conformada básicamente por un **rudus** de cantos sobre una cama de arena, aunque es posible conocer además la existencia de "tránsitos" de lajas en las zonas de ingreso a las construcciones. El trazado sinuoso del conjunto se hace más evidente con la observación del tramo de canal ahora exhumado, que discurre entre el camino y los cimientos de las construcciones, y que sin duda fue realizado con posterioridad a las mismas. Aquél debió estar parcialmente cubierto por lajas, en las zonas que discurría próximo a los ingresos de las casas, mientras servía de drenaje de agua en el resto de su trayecto.

La preocupación por conseguir una rápida evacuación de las aguas se hace también evidente en la margen occidental del recinto "X", de nueva localización, donde se realizó una zanja de drenaje que corría paralela a la cimentación del edificio y que en su estado actual se presenta colmatada de derrumbes.

Los recintos "X" e "Y", parcialmente delimitados al final de esta campaña, forman parte de un conjunto unitario, cuyo sentido funcional no es posible determinar hasta que puedan ser excavados los interiores. En una de estas habitaciones -recinto Y- se localiza una de las catas realizadas en la campaña de 1989, que puso en evidencia la existencia de un horno de reducción de mineral de hierro en el lugar. La excavación parcial del interior de este recinto pone de manifiesto, no obstante, que el horno corresponde a un momento de ocupación ligeramente anterior a la urbanización del lugar, posiblemente dentro ya del siglo II, o en momentos muy avanzados del siglo I d. C. La conexión estratigráfica que se puede establecer entre los restos de carbones y tierra quemada que se localizan bajo los muros del recinto y las manchas de carbones que se pudieron localizar en los márgenes del camino de cantos permiten comprobar la extensión de este nivel por la zona inmediata y su cronología anterior a la pavimentación del camino.

El recinto Y presentaba originalmente un pavimento de lajas, hoy sólo conservadas en las proximidades de los arranques de los muros, donde han quedado mejor protegidas del robo de material de construcción que ha afectado a la totalidad del yacimiento.

El otro recinto localizado en esta banda, denominado X, corresponde a una amplia estancia de 11 x 6 mts., adosada a la anterior, que presenta ingreso desde el exterior en su lado S.E., sin solera apreciable. Su trazado es bastante regular, sólo gravemente alterado por las labores de arado en los arranques del muro W. Este recinto ha sido objeto únicamente de delimitación durante esta campaña, en la que se ha excavado la zona exterior circundante. Resulta por tanto imposible determi-

narrezko ohe baten gainean zabalduriko **rudus** edo harrizko zaborrak osatua dela alegia eta begibistakoa da eraikuntzetarako sarreretan harzabalez eginiko "transituen" presentzia. Multzoaren trazatu bihurria areagotu da agerian utzi den ubidearen aldean. Ubide hau bidearen eta eraikuntzetako zimentuen artean luzatu zen, eraikuntzak jaso ondoren betiere. Etxe-sarreraren inguruko aldeetan, harzabalez estalia egongo zen eta dreñaia-urak jasoko zituen gainerako ibilbidean.

Uren bideraketa azkar baten aldeko kezka hori bera ageri da aurkitu berri den "X" barrutiko mendebaldean: ubide bat luzatu zuten eraikuntzaren zimentuen paraleloan. Harrizko zaborrak estalia ageri da egun.

Kanpainaren bukaera aldera modu partzial batez mugatu ziren "X" eta "Y" barrutiak multzo baten osagarriak dira eta barrunbeak induskatu arte ezin zehaztuko da eraikuntza hark zeukan funtzioa. Gela hauetako batean, "Y" barrutian hain zuzen, 1989. urtean buruturiko kata bat ikusi da. Kata honek bertan burdinaren erreduziorako labe bat bazegoela utzi zuen agerian. Barruti honetan burutu den indusketa partzialak erakutsi duen bezala, labea eremua urbanizatu baino lehentxeagokoa da, II. mende hasierakoa edo K.o. I. mende bukaerakoa. Barrutiko murruean azpian aurkitu diren ikatz hondakin eta lur errearen eta harkosko-bide ertzetan ageri ziren ikatz orbanen arteko lotura stratigrafikoari esker, jakin ahal izan dugu maila hau ondoko eremura luzatzen zela eta bideko zoladura baino lehenagokoa dela.

"Y" barrutiko zoladura harzabalez egina zen jatorriz. Egun ikus daitezke murruean oinarrien aldeetan, aztarnategi osoan eragin handia izan zuen eraikuntza material lapurretatik babestuago zeudelako.

Alde honetan aurkitu den beste barrutia, "X" izenekoa, 11x6 m-ko gela zabal bat da, aurrekoari eratxikia. Sarrera hego-ekialdean zabaltzen da eta ez du zolarririk ageri. Trazatua erregular xamarra da, mendebaldeko murruean oinarrian buruturiko laborantza lanek oso hondatu duen arren. Kanpaina honetan mugatu mugatu ez dugu egin barruti hau, eta kanpoaldeko inguru osoa induskatu da. Une honetan ezin zehaztu dugu nolako funtzioa betetzen zuen egitura honek, gela guztiak

nar en este momento su naturaleza funcional, algo que, por otra parte, sólo podrá alcanzarse con la excavación de todo el conjunto de estancias que conforman esta nueva construcción.

En las zonas exteriores de esta unidad se conservan restos, de un pavimento de cal y arena que debió acondicionarse para dar una mayor firmeza a las zonas de tránsito que discurren en las márgenes del camino de cantos. Los restos del mismo se introducen en el perfil norte del área excavada, que esperamos pueda ampliarse en posteriores campañas.

osotasunean induskatu ondoan baizik ez dugu jakingo hori.

Egitura honen kanpoaldean, harkosko-bidearen ertzetako iragaitz-guneak sendotzearen egokitu zen kare eta hondarrezko zoladuraren hondakinak agertu dira, Induskaturiko eremuaren iparraldetik harantzago zabal-tzen dira hondakin hauek. Hurrengo kanpainetan zabalduko dugu, beraz, induskatu beharreko eremua.



Aloria. Vista general del área excavada. En el margen derecho pueden apreciarse los recintos "X" e "Y".

Aloria. Induskaturiko eremuaren ikuspegi orokorra. "X" eta "Y" barrutiak ikus daitezke eskuinaldeko ertzean.

A.2.1.4. **Necrópolis medieval de San Juan de Arzuaga** (Zeanuri)

I Campaña de excavaciones
Dirigida por Iñaki García Camino
Subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia.

Los sondeos realizados el pasado año en el yacimiento permitieron detectar la existencia de una necrópolis medieval en el subsuelo de la ermita de San Juan, cuyas tipologías predominantes parecían estar más relacionadas con los modelos de asentamiento estudiados en el Duranguesado (Momoitio, Mendraka y Memaia) que con los documentados en el valle de Arratia, (San Miguel y Santa Lucía de Arzuaga o San Cristóbal de Elgezu), donde se ubica el yacimiento.

Para explicar esta diversidad se hacía necesario excavar en extensión el interior del templo con el objeto de definir las características básicas del cementerio, lo que nos permitía conocer la procedencia de los aportes culturales observados en el asentamiento y su cronología. Por otro lado, pretendíamos encontrar indicios de la primitiva iglesia en torno a la que suponíamos que se articulaba la necrópolis, a juzgar por la información obtenida en otros lugares estudiados.

Como se documentó en la campaña de sondeos el yacimiento presenta tres fases de ocupación:

Período medieval

En el interior de la ermita se detectó parte de una necrópolis, datada provisionalmente en el siglo X. Se documentaron 11 sepulturas de diferente tipología distribuidas indistintamente por toda la superficie excavada, aunque concretándose de forma significativa en la zona S.E.

- Sepultura de muro: Se encontraba en la cabecera de la ermita actual, en el lado de la Epístola. Se trata de la sepultura mejor acabada de la necrópolis. A juzgar por los paralelismos que ofrece con otras semejantes del País Vasco, puede considerarse una de las manifestaciones funerarias más antiguas del Valle de Arratia, relacionada con tipologías del Duranguesado.
- Sepulturas de lajas: Fueron documentados dos ejemplares: uno infantil y otro correspondiente a un adulto. Si aquél reproduce el modelo clásico,

A.2.1.4. **San Joan-Artzuagako Erdi Aroko hilerria** (Zeanuri)

I. Indusketa kanpaina
Iñaki García Caminok zuzendua
Bizkaiko Foru Aldundiak subentzionatua.

Joan den urtean aztarnategian burutu ziren zundaketek adierazi bezala, Erdi Aroko hilerri baten presentzia berretsi zen San Joan ermitako zorupean. Bertan ageri zen tipologia Durangaldean ikerturiko finkamendu batzuetan ageri zenaren antzekoa zen (Momoitio, Mendraka eta Memaia) eta urruntzen zen, ordea, Arratiako haranean aztertuturikoetatik (Artzuagako San Migel eta Santa Luzia, Elgezuako San Kristobal), aztarnategi hau haran horretan berean dagoen arren.

Berezitasun hau behar bezala azaldu ahal izateko, elizaren barrunbea induskatu behar izan zen bere zaballean, hilerriaren oinarrizko ezaugarriak zehaztuko bagenituen. Honenbestez ezagutuko genituen finkamendu horretara bildutako kultur ekarpenak eta berorien kronologia. Bestalde, lehen elizaren aztamak aurkitu nahi genituen, hilerria berari itsatsia zegoela uste baikenuen, aztertuturiko beste leku batzuetan jasotako informazioaren arabera.

Zundaketa kanpainan aurreratu bezala, hiru okupazioaldi bereiz daiteke aztarnategian:

Erdi Aroa:

Hilerri bateko alde bat agertu zen ermitaren barruan eta X. mendeko data eman zitzaion behin-behingoan. Tipologia desberdineko 11 hilobi dokumentatu ziren. Induskaturiko hedadura guztian barrena agertu ziren, hego-ekialdean gehiago baziren ere.

- Horma-hilobia: Egungo ermitaren burualdean zegoen, Epístola aldean. Hilerriko hilobi landuena da inola ere. Euskal Herriko beste batzuekin alderatuta, antzekotasun nabariak eskaintzen ditu eta Arratiako haraneko hileta monumentu zaharrenetakotzat har daiteke, tipologia aldetik Durangaldeko moldeari lotua bada ere.
- Harzabalezko hilobiak: Bi ageri dira: haur batena bata eta pertsona heldu batena bestea. Haurraren hilobia klasikoa bada ere, helduarenean harzaba-

éste sólo presenta lajas en la cabecera y pies y dos en los costados sin cerrar la totalidad del espacio funerario. Las sepulturas de lajas son la modalidad de enterramiento más habitual en las necrópolis cristianas del Norte peninsular a lo largo del período comprendido entre los siglos IX y XII. En los territorios limítrofes son numerosas, no así en Bizkaia y en Gipuzkoa donde son minoritarias apareciendo entremezcladas con otros tipos, como es el caso de Arzuaga. La distribución espacial de estas sepulturas invita a pensar que son una de las manifestaciones externas del complejo fenómeno de aculturación meridional que sufre la vertiente atlántica del País Vasco.

- Sepulturas de fosa tallada en la roca: Presentan plantas ovoides o de bañera y contornos nítidos. Los perfiles definidos y bien acabados son de fondo plano y costados paralelos. Están cubiertas por lajas horizontales.

La presencia de estas manifestaciones funerarias en un necrópolis cristiana de la vertiente septentrional de la cordillera cantábrica es poco frecuente. Sólo se han localizado en la catedral de Oviedo, en Piélagos y Ovilla (Burgos). En Bizkaia han sido documentadas en la colina de Atxisper (Gamiz-Fika) y en el yacimiento de San Miguel de Alzusta. Al Sur de la divisoria de aguas son, por el contrario, muy abundantes, relacionándose con el proceso repoblador.

- Sepulturas de fosa simple: se trata del sistema de inhumación más elemental documentado en la necrópolis. Consiste en la apertura de una fosa en el terreno, donde era depositado el difunto. Las de Arzuaga han sido identificadas por sus cubiertas ya que resultó imposible aislar las fosas, habida cuenta de la semejanza existente entre las UU.EE. que rellenaban las sepulturas y las que la rodeaban y de la ausencia de restos óseos. En la vertiente cantábrica del País Vasco son mayoritarias, pero en modo alguno pueden ser utilizadas como elemento de datación cronológica, ya que se documentan en todas las épocas. Carecen de monumentalidad y están poco cuidadas en su acabado.

Contemporáneos de la necrópolis son **dos orificios** circulares situados en las proximidades de la sepultura tallada en la roca n.º 11. Ejemplos semejantes existen en algunas necrópolis catalanas, siendo interpretados como pervivencias rituales de tipo precristiano. En la misma línea debe interpretarse la pequeña cista detectada en la campa del lado Norte de la ermita rellena de carbones y cubierta con una estela (campaña de 1990).

lak burualdean, oinaldean eta saihetsetan (bi) baik ez dira ageri, hilobiaren gainerakoa itxi gabe dagoelarik. Harzabalezko hilobia ehortze molde erabiliena izan zen, IX-XIII. mendeetan, Iberiako penintsulako iparraldeko hilerri kristauetan. Aldameneko herrialdeetan ugari badira ere, urri dira Bizkaia eta Gipuzkoan. Hauetan beste hilobi molde batzuekin nahasian ageri dira, Artzuagako honetan gertatzen den bezala. Hilobi mota honen banaketa espazialak datu batzuk eskaintzen ditu Euskal Herriko Atlantikoaldeak, hegoaldearen eraginez, jasan zuen akulturazio konplexuaren nondik norakoa argitzerakoan.

- Haitzean zulaturiko hilobiak: planta oboide edo bainera antzekoa dute, ertzak guztiz markatuak. Ongi zehaztu eta landuriko perfilek hondo lau eta saihets paraleloak dituzte. Harzabal horizontalek estaltzen dituzte.

Ez da ohizkoa, iparraldeko hilerri kristau batean, gisa honetako hilobiekin topo egitea. Oviedoko katedrallean, Pielagos eta Ovillan (Burgos) baizik ez dira aurkitu. Bizkaian, Atxisper mendian (Gamiz-Fika) eta Alzustako San Migel ermitan aurkitu dira. Uren banalerroaren hegoaldean, aitzitik, oso ugari dira, lurralde haietako birpopulatzeko prozesuaren erakusgarri.

- Zulo bakuneko hobiak: Hilerhan ageri den ehortze molde ximpleena da. Lurrean zulo bat egin eta bertan ezartzen zen hildakoaren gorpua. Artzuagakoak estalkiei esker aurkitu ahal izan dira, hobiak bereiztea ezinezkoa baitzen guztiz ere, hobien barruko eta inguruko unitate estratigrafikoak antzekoak izateaz gainera, ez baitzen hezur arrastorik aurkitu. Gisa honetako hilobiak nagusi dira Kantaurialdean, baina ezin dira kronologia zehazterakoan erabili, garai guztietakoak izaki. Monumenturik ez dute eta trakets landuak dira.

Hilerriaren garai berekoak dira 11. arrokan tailaturiko hilobiaren inguruetan ageri diren **bi zulo** zirkular. Antzeko adibideak agertu dira Kataluniako hilerri batzuetan eta denboran zehar iraun duen kristautasunaren aurreko errotzat hartu izan da. Ermitaren iparraldeko zelaian aurkitu den zista edo harrizko hil-kutxa txikia jatorri berekoa izango zen. Ikatzez bete agertu zen, hilarri batek estalia (1990. urteko kanpaina).

El Dr. Gian Pietro Brogiolo, considerado como uno de los mejores especialistas europeos en la "Archeología dell'edilizia storica" o "Archeología dei sopravvissuto" aceptó en su equipo a la licenciada Arantza Fernández de Jáuregui con la finalidad de realizar un proyecto de formación en esta disciplina casi desconocida en nuestro País y que está alcanzando, sin embargo, altas cotas de eficacia y rentabilidad en otros ámbitos europeos. Nacida de la necesidad de documentar y registrar las estructuras emergentes o no-, este nuevo método estratigráfico se ha venido adaptando a las exigencias de la planificación urbanística y de la protección arquitectónica, siendo previsible su gran desarrollo en un futuro inmediato.

Dentro del programa de formación se han incluido los siguientes capítulos:

1. Conocimiento y adquisición de los contenidos teóricos de la "archeología dell'edilizia storica" en la Universidad de Venecia, asistiendo a las clases impartidas por el profesor Brogiolo.
2. Integración en el equipo dirigido por el mencionado investigador con ánimo de observar, en trabajos concretos de intervención y restauración, la "puesta en escena" de los principios teóricos aprendidos. Para ello se visitaron las excavaciones de la iglesia de Sta. Giulia de Brescia, el yaci-

Gian Pietro Brogiolo doktoreak, "Archeologia dell'edilizia storica" edo "Archeologia di sopravvissuto" izeneko disziplinan Europan dagoen espezialista nagusienetako bat dugu Brogiolo, Arantza Fernandez de Jáuregi lizentziatua onartu zuen bere taldean, gure herrian ia ezagutzen ez den ikerketa molde honetako prestakuntza lanean aritzeko. Disziplina honek guztizko emaitza onak eman ditu Europako hainbat lekutan. Egiturak, agerikoak eta ez, dokumentatu eta erregistratu beharrak eragindako metodo estratigrafiko berri hau hiri planifikazio modernoak eta arkitekturaren babeserako neurriek eskatzen dituzten beharkizunetara egokitu da eta luze gabe eremu guztietara zabalduko da ezbairik gabe.

Hona prestakuntza programa honek aurrakusten dituen atal nagusiak:

1. "Archeologia dell'edilizia storica" delakoaren edukin teorikoen ezagutza, Veneziako Unibertsitatean, Brogiolo irakasleak emaniko ikasketen bidez.
2. Aipaturiko ikertzaileak zuzenduriko lan taldean parte hartzea, ikasitako printzipio teorikoak praktikan jarri eta interbentzio nahiz erreataurazio lanak bertatik ezagutu ahal izateko. Halatan, Bresciako Santa Giulia elizako eta Paduako Monselice eta Santa Sofiako aztarnategietako indusketak eza-

miento de Monselice y Sta. Sofía de Padua. El trabajo fundamental, sin embargo, en el que se ha basado esta estancia en Italia, ha sido el estudio, para su rehabilitación, del centro histórico de Brescia, colaborando durante varios meses con un grupo de especialistas.

D.1.3.2. Master de Patrimonio Artístico y Arqueológico (Áreas de Arte y Arqueología)

La Facultad de Filología, Geografía e Historia de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, en colaboración con la Dirección de Patrimonio Histórico del Gobierno Vasco, celebró en 1991 el primer año de un Máster dedicado a la gestión de los testimonios del pasado y dirigido, especialmente, a licenciados que hubieran cursado estudios de Arte y Arqueología. Se trataba, con esta oferta, de fomentar la formación de profesionales especializados en el campo del Patrimonio Histórico.

El Master, con una duración de dos años, ha tratado de presentar en el primero de ellos una visión general acerca de los instrumentos básicos de la profesión: Funciones, Legislación, Procedimientos de Catalogación, Ordenación del Territorio-Urbanismo, Estudios de Impacto, Tramitación y Difusión, etc. El segundo curso se destinará a tratar aspectos concretos relacionados con el trabajo en los campos artístico y arqueológico del Patrimonio Histórico.

Su organización estuvo a cargo de una comisión compuesta por Agustín Azkarate (Área de Arqueología de la UPV), Ana de Begoña (Área de Historia del Arte de la UPV), Pedro Echeverría (Área de Historia del Arte de la UPV) y Mercedes Urteaga (Arkeolan), actuando esta última de coordinadora.

gutu ziren. Italiako egonaldia honetako lan nagusia, halere, Bresciako gune historikoari buruzko azterketa izan da. Espezialista-talde baten lanetan parte hartzeko aukera izan da lan honetan.

D.1.3.2. Arte eta Arkeologi Ondarearen Masterra (Arte eta Arkeologia Arloak)

Euskal Herriko Unibertsitateko Filologia, Geografia eta Historiako Fakultateak, Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondareko Zuzendaritzarekin batean, iraganeko testigantzen jostioari buruzko Master bat bideratu zuen 1991. urtean, Arte eta Arkeologiako ikasketak buruturiko lizentziatuei bereziki zuzendua. Historia Ondarearen arloan, profesional espezializatuak prestatzea zuen helburu eskaintza honek.

Bi urteko iraupena duen Masterrak eta lehenengo ikasturtean lanbide honi dagozkion oinarrizko tresneriari buruzko ikuspegi orokorra eskaini nahi izan du: Funtzioak, Legeria, Katalogaziorako Prozedurak, Lurraldearen Ordenakuntza-Hirigintza, Eraginari buruzko azterketak, Tramitazioa eta Zabalkundea, eta abar. Bigarren ikasturteak Historia Ondarearen arte eta arkeologia alorretako lanari dagozkion alderdi zehatzak izango ditu aztergai.

Agustin Azkarate (EHUko Arkeologia Alorra), Ana de Begoña (EHUko Artearen Historia Alorra), Pedro Echeverría (EHUko Artearen Historia Alorra) eta Mercedes Urteaga (Arkeolan) jaun-andreek osaturiko taldeak antolatu zuen Masterra. Mercedes Urteaga izan zen taldearen koordinatzailea.

D.2. BIZKAIA / BIZKAIA

D.2.1. *MUSEO ARQUEOLÓGICO, ETNOGRÁFICO E HISTÓRICO VASCO*

D.2.1.1. **Tecnología y función del utillaje lítico en el final del Paleolítico Superior**

Realizado por Jesús Emilio González y Juan José Ibañez

El utillaje lítico representa una parte fundamental del registro arqueológico durante las etapas paleolíticas. Hasta la fecha, en el ámbito de País Vasco, estos restos se han estudiado desde un enfoque exclusivamente tipologista, clasificando los útiles según su forma.

Sin embargo, cada vez es más evidente que la práctica exclusiva de este tipo de investigación ha quedado agotada. Se hace necesario estudiar el utillaje lítico desde un nuevo enfoque: como resultado de un comportamiento. Así el utillaje lítico se convierte en una vía de acceso a informaciones sobre los modos de vida de los grupos prehistóricos. En esta investigación se tratan dos aspectos inherentes a toda herramienta: las técnicas con las que se fabricó y el uso a que se destinó.

El proyecto se ha dividido en dos fases, una de desarrollo metodológico y otra de aplicación del método a conjuntos arqueológicos. Para crear la metodología se ha recurrido a la experimentación, reproduciendo los comportamientos del artesano prehistórico, observando

D.2.1. *EUSKAL ARKEOLOGIA, ETNOGRAFIA ETA KONDAIRA MUSEOA*

D.2.1.1. **Harrizko tresneriaren teknologia eta funtzioa Goi Paleolitos Aroaren bukaeran**

Jesus Emilio Gonzalezek eta Juan Jose Ibañezek burutua

Harrizko tresneria Paleolitos Aroko garai desberdinek eskaintzen duten erregistro arkeologikoaren funtsezko atala da inola ere. Orain arte, Euskal Herrian ikuspegi tipologista huts batetik aztertu dira hondakin hauek, tresnak beren formen arabera sailkatu direlarik.

Halaz ere, gero eta nabarmenago ikusten ari gara ikerketa mota honek eman beharreko guztia eman duela. Beste ikuspegi batetik aztertu behar dugu harrizko tresneria: giza portaera baten emaitza gisa. Horrenbestean, historiaurreko giza taldeen bizimoduari buruzko informazioa eskainiko digun bidea bilakatuko da harrizko tresneria. Tresna orori datxezkion bi alderdi aztertuko dira ikerketa honetan: lantzeko erabili ziren teknikak eta izan zuen erabilera.

Bi fase izan ditu proiektuak, garapen metodologikoa bata eta multzo arkeologiko desberdinetan eginiko aplikazio praktikoa bestea. Esperimentazio lanak burutu ditugu metodologia sortzerakoan, historiaurreko artisau haren industria portaera desberdinak erreproduzitu

los resultados y creando a partir de ahí, los criterios que permiten identificar cada comportamiento.

Para la talla se han tenido en cuenta las características morfológicas de los restos de fabricación, mientras que el análisis funcional conlleva la observación microscópica de los desgastes que el uso deja en los filos activos de la herramienta.

Se han aplicado ambos estudios al conjunto de instrumentos en sílex procedente del yacimiento epipaleolítico de Berniollo, situado en Subijana - Morillas (Araba). Además se ha analizado la funcionalidad del utillaje de los niveles aziliense y magdaleniense final del yacimiento de Santa Catalina (Lekeitio - Bizkaia).

Los resultados de este estudio han permitido obtener conclusiones sobre:

1. Las estrategias de utilización de las herramientas líticas, relacionando la función del útil con el tipo de materia prima y el soporte en que está elaborado, la presencia de retoques y la morfología de la pieza.
2. Los procesos técnicos que se desarrollaron útiles de piedra en cada uno de los lugares de habitación analizados.
3. La funcionalidad de los asentamientos y las estrategias globales de aprovechamiento del medio.

Este proyecto representa un punto de partida para nuevas investigaciones. En el campo metodológico se pretende avanzar en la cuantificación de los micropulidos de uso mediante la aplicación de sistemas de análisis artificial. En el campo arqueológico se busca contrastar las hipótesis creadas en esta investigación mediante el análisis de nuevos yacimientos.

D.2.1.2. Los comienzos del Paleolítico Superior en el País Vasco

Realizado por Rosa Ruiz Idarraga

Los trabajos realizados durante 1991 se han centrado en los siguientes aspectos:

1. Estudio de los materiales líticos de Bolinkoba, que incluyó la ordenación, lavado, dibujo y catalogación informatizada de los mismos.
2. Diseño de un programa experimental sobre tecnología y funcionalidad del utillaje óseo para su aplicación a conjuntos aurifiacienses y perigordenses del País Vasco.

ditugu, emaitzak ikusi dira eta, horretatik aurrera, portera hori zehazten duten irizpideak finkatu ditugu.

Taila lanetan, tresna hondakinen ezaugarri morfológicoak hartu dira kontutan. Análisi funtzionalak, bestalde, tresnaren ahoetan gertaturiko higaduren behaketa mikroskopikoa eskatu du.

Ikerketa molde hauek Berniolloko aztarnategi epipaleolíticoan (Subijana-Morillas, Araba) jaso diren sukarrizko tresnetan aplikatu dira. Honez gainera, Santa Katalinako aztarnategiko (Lekeitio, Bizkaia) maila azildar eta madalendarretan aurkituriko tresneriaren funtzionaltasuna ere aztertu da.

Hona azterlan honek eskaini dituen emaitzak:

1. Harrizko tresnen erabilera bideraturiko estrategiak aztertu dira. Tresnaren funtzioa eta lanketa horretan erabilitako lehen gaia, euskarria, ukituak eta morfologia erlazionatu dira.
2. Harrizko tresnak lantzeko prozedura teknikoak aztertu dira, zein bere lekuan.
3. Finkamenduen funtzioa eta inguruari probetxu ateratzeko jarraitu ziren estrategia nagusiak aztertu dira.

Ikerketa berrietarako abiapuntua eskaintzen du proiektu honek. Metodologiari dagokionez, erabilitako mikropulituen koantifikazioan sakondu nahi dugu, azterketa artifizialerako sistemak aplikatuta. Arkeologiari dagokionez, ikerketa honetan plazaraturiko hipotesiak kontrastatu nahi dira, beste aztarnategietako ikerketaren bidez.

D.2.1.2. Goi Paleolitos Aroaren hastapenak Euskal Herrian

Rosa Ruiz Adarragak burutua

Hona 1991. urtean burututako lanek nagusiki ukitu dituzten alderdiak:

1. Bolinkoba lezeko materialen azterketa, ordenakuntza, garbiketa, marrazketa eta katalogazio informatizatua barne.
2. Hezurrezko tresneriaren teknologia eta funtzionalitateari buruzko esperimenduzko programaren diseinua, Euskal Herriko multzo aurignactarrak eta perigordarrak aztertzeko.

La cadena técnica a reproducir se dividió en cinco fases:

- a) Antes de la selección del soporte (impactos por caza, descuartizado, descarnado, fragmentación).
- b) Creación del soporte.
- c) Acabado de la forma y de la preforma.
- d) Finalización del útil y escultura de los elementos particulares.
- e) Reavivado.

El programa experimental de huellas de uso pretende identificar dichos estigmas en las zonas activas y de emangue.

Ambos programas en su aplicación al tipo tecno-funcional arqueológico caracterizarían la industria ósea de estas etapas.

3. El estudio de los grabados de Venta Laperra ha completado el análisis morfoestilístico de las figuras para lo cual se han realizado calcos y fotografías. Además, el análisis de las técnicas de grabado se abordó mediante la realización de moldes de plástico de síntesis. El producto empleado fue el R.T.V. (room temperature vulcanizing) n.º 1556 de la casa Rhone-Poulenc. Estos moldes han sido analizados mediante observación microscópica. El estudio exigía un trabajo experimental de grabado tanto sobre soporte mueble como parietal.

D.2.1.3. Las ocupaciones prehistóricas de la cuenca del río Lea. Revisión de la estratigrafía del yacimiento de la cueva de Lumentxa (Lekeitio)

Realizado por José Luis Arribas Pastor

Dentro del plan de investigación de las ocupaciones prehistóricas de la cuenca del río Lea y, más concretamente, de la revisión estratigráfica del yacimiento de la cueva de Lumentxa, que se viene desarrollando desde el año 1984, se ha procedido, a lo largo de 1991, a la realización de las siguientes actividades en las instalaciones del Museo:

1. Conclusión del lavado, siglado e inventariado de los materiales arqueológicos recuperados en la campaña de excavaciones de 1990.
2. Inventariar y agrupar los restos óseos humanos exhumados en los trabajos llevados a cabo por D. Telesforo de Aranzadi y D. José Miguel Barandiaran en el yacimiento de Lumentxa, con el fin de

Prozedura teknikoak bost fase berezi izan ditu:

- a) Euskarria sortu aurretik (ehize ukaldiak, laurdenkatzea, larrutzea, haustea).
- b) Euskarriaren sorkuntza.
- c) Forma eta preformaren taxuketak.
- d) Tresnaren lanketa osoa eta elementu berezi bakoitzaren eskultura.
- e) Birgaitzea.

Hatzei buruzko esperimantazio programaz, hatz seinaleak aurkitu nahi izan dira tresnen aho eta euskarrietan.

3. Venta Laperrako aztarnategiko grabatuen azterlanaz osatu dugu irudiei buruzko azterketa morfoestilistikoa eta kalkoak nahiz argazkiak egin ditugu horretarako. Gainera, sintesi-plastikozko moldeen bidez egin zen grabaketa teknikei buruzko analisia. Rhone-Poulenc etxeko R.T.V. 1556 (room temperature vulcanizing) izan zen erabilitako gaia. Behaketa mikroskopikoen bidez aztertu dira moldeak. Azterlanak grabaketa lan esperimentalak eskatzen zituen, euskarri higitarran nahiz paretetan eginak.

D.2.1.3. Lea ibaiaren arroko historiaurreko okupazioak. Lumentxako lezeko estratigrafiaren berrikusketa (Lekeitio)

Jose Luis Arribas Pastorrek burutua

Lea ibaiaren arroko historiaurreko okupazioei buruzko ikerketa planaren barnean eta, zehazkiago, 1984. urtetik aurrera Lumentxako lezeko estratigrafia berrikus-ten ari den programaren barnean, honako iharduera hauek burutu ditugu, 1991. urte osoan zehar, Museoko instalazioetan:

1. 1990. urteko indusketa kanpainan jaso ziren material arkeologikoen garbiketa, dataketa eta zerrenda burutu ditugu.
2. Telesforo Aranzadi eta Jose Migel Barandiaran jaunek Lumentxako lezean jaso zituzten giza hezurak sailkatu eta batu ditugu, berriki jaso direnekin batean, Euskal Herriko Unibertsitateko

ser enviados, junto a los recuperados más recientemente, al Laboratorio de Antropología de la Facultad de Ciencias de la UPV/EHU para su limpieza, consolidación, identificación y estudio de las posibles relaciones anatómicas existentes entre los distintos restos. Este trabajo fue efectuado bajo la dirección de la Dra. Concha de la Rúa.

3. Inicio del lavado y siglado, en los casos necesarios, e inventariado de los restos de peces, aves y moluscos recuperados por Aranzadi y Barandiaran en orden a un posible estudio de todas las evidencias, que permita su integración en la reconstrucción estratigráfica del yacimiento.
4. Continuación del estudio de los materiales líticos, óseos y cerámicos para proceder a la redacción de la memoria científica de las siete campañas de excavación realizadas entre los años 1984 y 1990.

D.2.1.4. **Las ocupaciones prehistóricas de la cuenca del río Lea. Estudio del yacimiento de Santa Catalina (Lekeitio)**

Realizado por Eduardo Berganza

El trabajo de investigación que se viene realizando en el yacimiento de Santa Catalina se ha centrado en el análisis pormenorizado de los materiales recuperados en las campañas realizadas hasta el momento, lo que ha permitido confeccionar un primer estudio detallado tanto de la secuencia estratigráfica como de sus abundantes materiales. Esta memoria científica lleva a constatar que nos encontramos ante una de las secuencias más interesantes, en Bizkaia, de los momentos tardíos del Paleolítico Superior. Para ello se ha procedido a la clasificación, dibujo e informatización de toda la industria lítica y ósea.

Igualmente se ha comenzado el trabajo de lavado, clasificación y dibujo de los materiales, tanto de sílex como de hueso, recuperados en la campaña de excavaciones llevada a cabo durante el mes de Septiembre de 1991.

A fin de disponer de una información lo más completa posible sobre el yacimiento, se ha colaborado con otros planes de investigación, facilitándoles materiales e información sobre los mismos. Este es el caso de los análisis de huellas de uso llevados a cabo por D. Jesús

Zientzietako fakultateko Antropologiako Laborategira bidaltzeko. Garbitu, sendotu eta sailkatu egin dituzte bertan eta, gainera, hezurki desberdinen artean zegoen lotura anatomikoa aztertu da. Concha de la Rúa doktorearen zuzendaritzapean burutu da lan hau.

3. Aranzadi eta Barandiaran jaunek jaso zituzten arrain, hegazti eta moluskuen hondakinen garbiketa eta dataketa, behar zuten kasuetan, eta zerrenda burutu ditugu, agerturiko pieza guztiak behar bezala aztertu ondoren, aztarnategiko berregituratze estratigrafikoa egin ahal izateko.
4. Harri, hezur nahiz zeramikazko materialen azterketan segitu dugu, 1984-1990 urteetan buruturiko zazpi kanpainei buruzko zientzi memoria prestatzeko xedean.

D.2.1.4. **Lea ibaiaren arroko historiaurreko okupazioak. Santa Katalinako lezearen azterketa (Lekeitio).**

Eduardo Berganzak burutua

Santa Katalinako aztarnategian burutzen ari garen ikerketa lanaren barnean betiere, xehe-xehe aztertu ditugu orain arteko kanpainen jaso diren material guztiak, eta sekuentzia estratigrafikoari eta jasotako material ugari buruzko lehen azterketa oso bat prestatu ahal izan dugu horrenbestean. Zientzi memoria honen arabera, Bizkaiko Goi Paleolitos Aroaren amaierako sekuentzia interesgarrietako baten aurrean gaude. Halatan, sailkatu, marraztu eta informatizatu ditugu hezur eta harrizko tresna guztiak.

Hasiak dira, halaber, 1991. urteko Irailean zehar burutu zen indusketa kanpainan jasotako sukarrak nahiz harrizko materialen garbiketa, sailkapen eta marrazte lanak.

Aztarnategiari buruzko ahalik eta informazio osoena taxutu beharrez, beste ikerketa plan batzuekiko elkarkidetza lanak burutu ditugu, geuk jasotako material eta informazioa erabilita. Gisa honetakoak dira Jesus Emilio Gonzalez Urquijok eta Juan Jose Ibañez Estevezek ha-

Emilio González Urquijo y D. Juan José Ibáñez Estévez, o el de antraacología de Dña. Paloma Uzquiano.

Con todo ello se pretende establecer un modelo de interpretación que sirva para el estudio de las ocupaciones prehistóricas de la cuenca del Rio Lea.

D.2.1.5. La ocupación del Bronce Final en la cueva de Arenaza I (San Pedro de Galdames)

Realizado por Juan María Apellániz

El estudio de las ocupaciones prehistóricas del Neolítico hasta la Romanización de la población que vive en cuevas, dedicaba al pastoreo y a la caza, tal como las revela la estratigrafía de Arenaza I aborda el Bronce Final. Este período se encuentra documentado con claridad en la estratigrafía de Los Husos pero no presenta la misma en la zona cantábrica de la población. Arenaza I ofrece condiciones para establecer sus características principales.

Este estudio se ha visto favorecido por el plan de documentación de los fondos de metal que ha iniciado la Sección de Arqueología, dentro del cual se han realizado los análisis de sus materiales. Gracias a la tipología y naturaleza metálica de éstos se ha podido comprobar que algunos corresponden indudablemente a este período y pueden distinguirse bien de otros claramente atribuibles tanto a la etapa romana como al Bronce medio.

Al estudio de los materiales de metal sigue el de la cerámica, cuyo dibujo está siendo realizado por D. José Luis Ibarra Alvarez.

D.2.1.6. La pervivencia de la iconografía pre-romana vizcaína en la estela medieval

Realizado por M.^a José Zavala Altube

En este trabajo, realizado en parte sobre fondos del Museo, se ha estudiado la pervivencia de la iconografía pre-romana en la estela medieval. Analizando los motivos decorativos que se repiten en la estela pre-romana y

tzei buruz eginiko analisiak edota Paloma Uzquianok antraakologiaz buruturiko lanak.

Lea ibaiaren arroko historiaurreko okupazioei buruzko azterlanak osatzen lagunduko duen interpreta-tziobide bat finkatu nahi izan dugu lan honetaz.

D.2.1.5. Brontze Aroaren amaierako okupazioa Arenatza I lezean (San Pedro-Galdames)

Juan Maria Apellanizek burutua

Neolitos Arotik Erromanizazioko garaietara arte haitzuloetan bizi izan ziren zibilizazio artzain nahiz ehiztarien historiaurreko okupazioei buruzko azterketak Brontze Aroaren amaiera ere hartzen du, Arenatza I lezeko estratigrafiak aditzera ematen duen bezala. Garai hau argi eta garbi ageri da Los Husos lezeko estratigrafiari, baina ez Kantaurialdean. Arenatza I lezeak hutsune hori bete eta garai hartako ezaugarri nagusiak zehazteko aukera ematen digu.

Laguntza handia eskaini dio azterketa honi, Arkeologia Sailak metalezko fondoei buruz abiarazi duen dokumentazio planak, proiektu horren arabera aztertu baitira materialak. Material hauen tipologia eta izaera metalikoari esker jakin ahal izan dugu horietako batzuk garai honetakoak direla zalantzarik gabe eta bereiztasun nabariak aurkezten dituztela erromatarren garaikoak edo Brontze Ertainekoak liratekeen beste batzuen aurrean.

Zeramikazko materiala ikertuko da, metalezko material hauei buruzko azterketaren ondoren. Jose Luis Ibarra Alvarez ari da zeramika horri dagozkion marrazkiak egiten.

D.2.1.6. Erromatarren aurreko ikonografia Bizkaiko Erdi Aroko hilarrietan

Maria Jose Zavala Altubek burutua

Neurri batean Museoko fondoetan burutzen ari den lan honek erromatarren aurreko ikonografiak Erdi Aroko hilarrietan duen presentzia aztertzea du helburu. Erromatarren aurreko eta Erdi Aroko hilarrietan ageri diren deko-

medieval se puede deducir, por eliminación cuales son exclusivamente medievales e intentar, en base a ello, una aproximación cronológica de algunas piezas.

Entre los primeros se han clasificado siete motivos: bandas horizontales o verticales, motivos cruciformes, radiales, espiga, dientes de sierra, círculos concéntricos y semicírculos tangentes a una línea.

Entre los segundos, hasta un total de diecisiete, se han clasificado entre otros: triángulos concéntricos, óvalos, róleos, fusiformes, animales, figuras humanas, etc., además de la existencia de epigrafía.

De una selección de treinta estelas se elabora un cuadro, en el que se colocan en abcisas y ordenadas los motivos decorativos y las propias estelas. La hipótesis consiste en que las estelas que presenten más motivos heredados y menos o ninguno de los que se han considerado "exclusivamente medievales" serían más antiguas.

razio motiboak aztertu ondoren, jakin ahal izan dugu, eliminazioz, zein diren soilik Erdi Aroko motiboak eta, hauek oinarri bihurturik, pieza batzuen dataketa kronologikora hurbildu ahal izan gara.

Zazpi motibo bereizi dira erromatarren aurreko motiboen artean: zerrenda horizontalak eta bertikalak, gurutzeantzeko motiboak, erradialak, galburuak, zerra-hortzak, zirkulu kontzentrikoak eta lerro baten tangentean antolaturiko erdizirkuluak.

Hamazazpi motibo bereizi ahal izan dira, aldiz, Erdi Arokoen artean: triangelu kontzentrikoak, obaloak, erroleoak, motibo fusiformeak, animaliak, giza irudiak, eta abar. Hauez gainera, epigrafeak ere ageri dira honelakoetan.

Koadro bat osatu dugu bereizi ditugun hogeitamar hilarriekin. Abzisa eta ordenadetan kokatu ditugu dekorazio motiboak eta hilarriak berak. Erabili den hipotesiaren arabera, aurreko garaietako motibo gehien eta "soilik Erdi Arokotzat" hartu diren motibo gutxien, edo batere ez, ageri dituzten hilarriak izango lirarteke zaharrenak.

D.3. GIPUZKOA / GIPUZKOA

D.3.1. *SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI. DEPARTAMENTO DE PREHISTORIA*

- Las cuevas sepulcrales del País Vasco. A. Armendáriz ha concluido este estudio, que constituye su tesis doctoral. Comprende el análisis de 227 yacimientos funerarios en cueva de la parte peninsular del País Vasco. La tesis será defendida en la Universidad del País Vasco durante 1992.
- Xabier Peñalver continúa con el estudio de la Edad del Hierro en la vertiente atlántica de Euskal Herria, consistente en su tesis doctoral, que está siendo completada con algunos de los últimos hallazgos en el poblado protohistórico de Intxur.
- Se han continuado los estudios de composición y marcas de uso en materias primas de diversos yacimientos paleolíticos como Aitzbitarte IV, Ekain y Amalda.
- También se continúa investigando sobre tecnología lítica con diversas piezas de yacimientos del País Vasco, trabajo que se incluirá dentro de la tesis doctoral sobre "Evolución tecnomorfológica de utensilios líticos", que viene realizando F. Zumalabe.
- Olaetxea continúa el estudio de los materiales cerámicos de Gipuzkoa, englobados en el Bronce Final y la Edad del Hierro como parte de su tesis doctoral "La Tecnología cerámica en la Protohistoria de Euskal Herria", que realiza bajo la dirección de M. Almagro Gorbea de la Universidad

D.3.1. *ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA. HISTORIAURREA SAILA.*

- A. Armendarizek Euskal Herriko hilobi-lezeei buruzko ikerketa, bere doktore tesia alegia, amaitu du. Hego Euskal Herriko 227 hilobi-leze ikertu ditu. 1922. urtean aurkeztuko du tesia Euskal Herriko Unibertsitatean.
- Euskal Herriko Kantaurialdeko Burdin Aroa ikertzen jarraitzen du Xabier Peñalverrek. Doktore tesia izango den ikerketa hau Intxurren burututako azken aurkikuntza batzuen bitartez osatzen ari da Peñalver.
- Paleolitos Aroko aztarnategi batzuetako lehen-gaien konposizioa eta erabilpenaren aztarnak ikertzen segitu dugu, Aitzbitarte IV, Ekain eta Amaldako aztarnategietan esate baterako.
- Euskal Herriko aztarnategietan aurkituriko pieza batzuen teknologia litikoa ikertzen ari gara ere. F. Zumalabe harrizko tresnen bilakaera tecnomorfologikoaz ("Evolucion tecnomorfologica de utensilios liticos") burutzen ari den doktore tesiaren osagarria izango da ikerketa hau.
- Azken Brontze Aroko eta Burdin Aroko Gipuzkoako zeramika puskak ikertzen jarraitzen du Olaetxea, Euskal Herriko Lehen-historiako zeramikaren teknologiaz burutzen ari den doktore tesiaren barnean ("La Tecnología' a ceramica en la Protohistoria de Euskal Herria"). Madrilgo Universidad Com-

Complutense de Madrid. Se han estudiado un total de 40 láminas delgadas correspondientes a otros tantos fragmentos cerámicos con resultados interesantes en lo que se refiere al estudio petrográfico de las cerámicas de los poblados de la Edad del Hierro en Gipuzkoa.

También ha realizado el análisis de 15 fragmentos cerámicos del yacimiento francés de Bourges I por encargo de la Universidad Complutense de Madrid con el fin de publicar las conclusiones del estudio tecnológico a modo de anexo de la memoria de las distintas campañas de excavación.

Como conclusiones principales podemos decir que las copas carenadas Hallstáticas de Bourges 1.1, 1.2 e 1.3 están decoradas con una solución en la que se ha incluido grafito y se ha aplicado con pincel a modo de pintura.

En cuanto al origen de las arcillas utilizadas, no cabe ninguna duda de que son de origen local.

- K. Mariezkurrena ha realizado el estudio de los restos óseos de Potorrosín (Oñati) e iniciado el de los restos óseos de Arellano, yacimiento romano cuya excavación ha sido dirigida por M. Angeles Mezquiriz.
- Avifauna de Herriko Barra. Se espera la conclusión definitiva de un trabajo que cuenta con la colaboración de A. Sánchez Marco del Museo de Ciencias Naturales de Madrid, sobre la avifauna de Herriko Barra. Estudio de interés biogeográfico y paleoetnológico, ya que se demuestra por vez primera el consumo de aves marinas en el sur de Europa y se postula una alteración de las áreas de cría de varias especies pelágicas durante el Holoceno debido a la antropización

Se está creando una base de datos adecuada a un tratamiento posterior mediante G.I.S., sobre biogeografía actual de aves nidificantes del País Vasco, con el fin de cortejar a efectos metodológicos, esta información con la derivada de la obtenida durante el Pleistoceno. Este trabajo lo está llevando a cabo Mikel Elorza.

- Análisis polínicos. Se ha concluido el estudio al microscopio de las muestras tomadas en los yacimientos de La Hoya (Laguardia, Álava), Cortes (Cortes, Navarra), Puy Águila (Bardenas Reales), Cantera Pichón (Bardenas Reales), Monte Aguilar II (Bardenas Reales), Intxur (Tolosa, Gipuzkoa) y Praile Aitz (Deba, Gipuzkoa)

Por otro lado, se han recogido muestras en los siguientes yacimientos: Kosnoaga, Berreaga, Ilso Betaio, La Cabaña y Coto Basero en Vizcaya; Unanabi y Aitzbitarte III en Gipuzkoa.

plutenseko M. Almagro Gorbearen zuzendaritzapean burutuko du tesia. 40 zeramika zatiren xafila meheak ikertu ditu eta Gipuzkoako Burdin Aroko bizilekuetan aurkituriko zeramikazko pusken ikerketa petrografikoari dagokionez, emaitzak interesgarriak izan dira.

Frantziako Bourges I izeneko aztarnategian aurkituriko 15 zeramika zatiren ikerketa ere burutu du Olaetxeak, Madrileko Unibersidad Complutense delakoak eskatuta. Lan hauek teknologia mailako ikerketari buruzko emaitzak argitaratzea dute helburu, indusketa kanpaina desberdinetan buruturiko memoriaren eranskin gisa.

Zera esan dezakegu ondorio gisa, Bourges 1.1, 1.2 eta 1.3 aztarnategietan aurkituriko Hallstat garaiko kopa karenatuak grafitoa sartu den disoluzio batez apainduak ageri dira, pintura gisa pintzelez emana.

Erabilitako buztinaren jatorriari buruz, bertakoa dela zalantzarik ez dago.

- Oñatiko Potorrosinen aurkituriko hezur hondakinak ikertu ditu Koro Mariezkurrenak. Maria Angeles Mezquirizen zuzendaritzapean Arellanako aztarnategi erromatarrean burutu zen indusketan aurkituriko hezur hondakinaren ikerketa hasi du halaber.
- Herriko Barrako Abifauna. Madrilgo Museo de Cienciasko A. Sanchez Marcoren laguntzaz, Herriko Barrako abifaunari buruz egindako lan baten azken emaitzaren zain gaude. Interes biogeografikoa eta paleoetnologikoa izan du ikerketak, Europako Hegoaldean itsas hegaztiak jaten zirela egiaztatu baita lehenengo aldiz eta Holozeno garaian, antropizazioaren eraginez itsas hegazti ugari hazteko eremuak aldatu zituztelako iritzia defendatzen da txostenean.

Euskal Herriko hegazti habiagileen egungo biogeografiari buruzko datu base bat burutzen ari gara, gero G.I.S.aren bidez tratatuko dena. Metodologia dela-eta, oraingoan lortutako informazioa Pleistozeno garaian buruz lortutako informazioarekin alderatzea dugu helburu. Mikel Elorza ari da lan hau burutzen.

- Ikerketa polinikoak. La Hoya (Biasteri, Araba), Kortés (Kortés, Nafarroa). Puy Águila (Errege Bardeak), Cantera Pichón (Errege Bardeak), Agilar II mendia (Errege Bardeak), Intxur (Tolosa, Gipuzkoa) eta Praile Aitz (Deba, Gipuzkoa) aztarnategietan jasotako laginen ikerketa mikroskopikoa burutu dugu.

Bestalde, laginak jaso ditugu honako aztarnategi hauetan: Kosmoaga, Berreaga, Ilso Betaio, La Cabaña eta Coto Basero Bizkaian eta Unanabi eta Aitzbitarte III Gipuzkoan.

D.3.2. SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI. DEPARTAMENTO DE ARQUEOLOGÍA HISTÓRICA

D.3.2.1. Estudio histórico de los puertos de Euskadi

Coordinado por Ana M. Benito Domínguez

El Departamento de Transportes y Obras Públicas del Gobierno Vasco ha solicitado a la Sociedad de Ciencias Aranzadi la realización del "Estudio Histórico de los Puertos de Euskadi" que se plasmará en trece publicaciones monográficas dedicadas a los puertos de: Plentzia, Armintza, Bermeo, Mundaka, Elantxobe, Lekeitio, Ondárroa, Mutriku, Zumaia, Getaria, Orío, Donostia y Hondarribia. Partiendo de las transformaciones morfológicas que han sufrido estos puertos, se estudia su actividad comercial y marítima así como la incidencia de estas manifestaciones económicas en la vida de las villas donde están inmersos. El equipo compuesto por once personas está dirigido y coordinado por Ana Benito.

D.3.2.2. Estudio y revisión submarina de Iturritxiki

Realizado por Ana M. Benito Domínguez

Si bien no se ha podido realizar la II Campaña de Excavación, el estudio y la revisión submarina del yacimiento ha continuado.

A través de las inmersiones realizadas en primavera se comprueba que el nivel de arena ha bajado de manera considerable, principalmente en el Sector C (el más fructífero de los explorados hasta el momento) descubriendo un agrupamiento de materiales: alfileres, "asas" (cuya funcionalidad aún no está definida), munición, etc. Estos restos arqueológicos se encontraban expuestos a la acción del mar y al alcance de posibles expoliadores, de esta situación se informa a las autoridades competentes así como de la necesidad de actuar arqueológicamente en el yacimiento en estos momentos propicios.

D.3.2. ARANZADI ZINTZI ELKARTEA. ARKEOLOGIA HISTORIKOA SAILA

D.3.2.1. Euskadiko portuen ikerketa "historikoa

Ana M. Benito Gonzalezek koordinatua.

Eusko Jauriaritzako Garraio eta Obra Publikoetarako Sailak Euskadiko Portuen Ikerketa Historikoa burutzeko eskatu dio Aranzadi Zientzi Elkarteari. Honako portu hauei dagozkien hamairu argitalpen monografikotan itxuratuko da ikerketa: Plentzia, Armintza, Bermeo, Mundaka, Elantxobe, Lekeitio, Ondarru, Mutriku, Zumaia, Getaria, Orío, Donostia eta Hondarribia. Portu hauek izan dituzten aldaketa morfologikoetatik abiatu eta, izandako merkataritza eta itsas iharduera ikertzen ari gara, baita portuak dauden herrietan molde ekonomiko hauek izandako eragina ere. Hamaika pertsonak osatzen du Ana Benitok zuzendu eta koordinatzen duen lan taldea.

D.3.2.2. Iturritxikiko ikerketa eta urpeko berrikuspena

Ana Maria Benito Dominguezek burutua

II. Indusketa Kanpaina ezin burutu izan badugu ere, aztarnategiko ikerketa eta urpeko berriskupen lanetan segitu dugu.

Udaberrian buruturiko urperaldietan ikusi dugunez, hondarraren maila asko jaitsi da, C Sektorean batez ere (oraingoz ikertu direnetan emankorrena). Materialak pila-tuak aurkitu ditugu: buruhorrazak, kiderrak (oraindik ez dugu zehaztu zerenak edo zertarako ziren), munizioa, etab. Hondakin arkeologiko hauek itsasoaren eraginaren mendean eta edozein ebaslek hartzeko arriskuan zeuden. Dagokien agintariei honen berri eman zitzaienten, baita momentu egoki honetan aztarnategian iharduera arkeologikoa burutzeko beharra azaldu ere.

D.3.3. OTROS TRABAJOS DE INVESTIGACIÓN

D.3.3.1. El yacimiento paleontológico de Troskaeta'ko Koba (Ataun)

Realizado por Trinidad de Torres Pérez-Hidalgo

El estudio consta de dos partes bien diferenciadas: geológica y paleontológica.

En la parte geológica, además de una síntesis estratigráfica y estructural de la zona conocida como el "Domo de Ataun", basada en la bibliografía existente y en trabajos de campo propios, se hace un estudio geomorfológico de la cuenta alta del río Oria, en un intento de relacionar el yacimiento de Troskaeta con algún fenómeno geomorfológico determinado, aunque la ocupación de la cueva por la población de oso de las cavernas, no parece estar ligada cronológicamente con el desarrollo de alguna forma. Se precisa la génesis de la cavidad, ligada a la fracturación del Domo de Ataun y no a la estratificación de las calizas urgonianas.

En la parte paleontológica se realiza un análisis tafonómico del yacimiento, que lleva a concluir que era ocupada por hembras gestantes, lo que explica la presencia notable de restos de abortos o de animales muertos en período perinatal, así como de oseznos de un año. Todos estos materiales fueron transportados por corrientes viscosas al fondo de una sima donde, en desorden, se preservaron excelentemente.

El análisis morfológico y métrico de los restos de animales adultos ha llevado a los autores del trabajo a definir una nueva subespecie de oso de las cavernas: *Ursus spelaeus parvilatipedis*, caracterizada por zarpas anchas y cortas (de ahí su denominación), morfología hasta ahora nunca citada en la Península Ibérica ni en el resto de Europa; la dentición presentaba algunos caracteres arcaicos.

No se ha podido precisar la edad de esta población de oso de las cavernas que, de acuerdo con el rango de distribución de esta especie, podría ir desde el Riss II a finales del Würm. Algunos de los caracteres arcaicos de la dentición sugerirían antigüedad, pero fenómenos de convergencia con morfologías primitivas, también se dan en poblaciones tardías aisladas. No cabe duda que la población de Troskaeta representa una peculiar adaptación al medio, bien sea al inicio de la especiación del oso de las cavernas o en una población relictas a finales del Würm. En este año se espera poder datar esta población mediante el análisis de racemización de aminoácidos.

D.3.3. BESTE IKERKETA LAN BATZUK

D.3.3.1. Troskaetako Kobaeko aztarnategi paleontologikoa (Ataun)

Trinidad de Torres Perez-Hidalgok burutua

Bi fase desberdin ditu ikerketak: ikerketa geologikoa eta ikerketa paleontologikoa.

Geologiari dagokionez, dagoen bibliografía eta berezko landa-lanetan oinarriturik "Ataungo Domoa" ize-nez ezagutzen den eremuan buruturiko estratigrafia eta egituraren sintesiaz gain, ikerketa geomorfologiko bat burutu dugu Oria ibaiaren goi arroan. Fenomeno geomorfologiko zehatz batekin lotu nahi genuen Troskaetako aztarnategia. Halere, leze hau harpeetako hartzen okupazioak ez dirudi halako kronologia zehatz bati loturik dagoenik. Lezearen jatorria zehaztu dugu, Ataungo Domoaren hautsi zeneko garaiari dagokio, eta ez kararri urgoniarren estratifikazioari.

Paleontologiaren arloan, aztarnategiaren ikerketa tafonomikoa burutu dugu. Ikerketa honen ondorioz aztarnategia ume egiteko zeuden emeek okupatzen zutela pentsatu dugu, aborto batzuen aztarnak eta erditzean hildako animalien hondakin ugari ageri baitira, baita urtebete hartzkumeen hondakinak ere. Hondakin guzti hauek korronte likits batzuek eraman zituzten lezearen hondora eta han bikain kontserbatu dira, nahasian.

Animalia helduen hondakinen ikerketa morfologiko eta metrikoak harpeetako hartzen azpimota berri bat zehazteko aukera eman die lanen egileei: *Ursus spelaeus parvilatipedis* delakoaren aurrean geundek. Hatzapar zabal eta motzak ditu hartz mota honek, orain arte ez zen inoiz aurkitu morfologia hau Iberiako Penintsulan, ezta Europa osoan ere. Hortzeriak eite guztiz zaharrak ageri ditu.

Ezin zehaztu izan dugu harpeetako hartzen bizeleku honen kronologia, baina mota honen banaketa hierarkiaren arabera, Riss II.etik Würm glazialdiaren Amaiera artekoa izan liteke. Hortzerian ageri diren eite zaharkitu batzuek antzinekotasuna iradokitzen badute ere, beranduagoko bizileku batzuetan ere ematen dira antzinako morfologia duten fenomenoak. Zalantzarik gabe, inguruaren aurreko egokitze berezia ageri du Troskaetako bizilekuak, harpeetako hartzen hasierako nahiz Würm glazialdiaren amaierako bizileku batean emango zena. Aurtengoan espero dugu bizileku hau datatzea, aminoazidoen razemizazioen azterketaren bidez.

E. DIFUSIÓN

E. ZABALKUNDEA

E. 1. *PONENCIAS Y COMUNICACIONES
PRESENTADAS A CONGRESOS*

**IV JORNADAS DE ETNOLOGÍA.
LA CULTURA PASTORIL**

Organizadas por el Centro de Investigación y Animación Etnográfica y el Instituto de Conservación y Restauración de Bienes Culturales.

La Rioja, 17-20 de mayo de 1990

COMUNICACIÓN:

Acercamiento a las culturas pastoriles prehistóricas a través de los datos etnográficos actuales
(José Ignacio Vegas Aramburu)

**I CONGRESO NACIONAL
DE PALEOPATOLOGÍA**

Organizado por el Departamento de Antropología. Sociedad de Ciencias Aranzadi.

San Sebastián 21-23 junio 1991

PONENCIA:

La idea de la muerte y los rituales funerarios durante la Prehistoria del País Vasco
(Ángel Armendariz)

*
**

COMUNICACIÓN:

Presente y futuro de las relaciones entre Arqueología y Paleopatología
(Ignacio Vegas Aramburu)

*
**

COMUNICACIÓN:

San Juan A.P.L. (Laguardía - Álava). Nueva visión de un depósito de restos óseos en su excavación, estudio y valoración
(José Ignacio Vegas Aramburu)

*
**

E.1. *KONGRESUETAN AURKEZTURIKO
PONENTZIA ETA KOMUNIKAZIOAK*

**IV ETNOLOGIARI BURUZKO IHARDUNALDIAK.
ARTZAIN KULTURA**

Errioxako Centro de Investigación y Animación Etnográfica eta Instituto de Conservación y Restauración de Bienes Culturales erakundeek antolatutak.

Errioxa, 1990eko maitzak 17-20

KOMUNIKAZIOA:

Hubiltze saio bat historia aurreko artzain kulturetara, egungo datu etnografikoetatik abiatuta
(Jose Ignacio Vegas Aramburu)

225

**PALEOPATOLOGIARI BURUZKO I. KONGRESU
NAZIONALA**

Antropologia Sailak antolatua. Aranzadi Zientzi Elkartea.

Donostia, 1991ko ekainak 21-23

PONENTZIA:

Heriotzaren inguruko ideia eta hileta erritoak Euskal Herriko Historiaurrean
(Angel Armendariz)

*
**

KOMUNIKAZIOA:

Arkeologiaren eta Paleopatologiaren arteko harremanak orain eta etorkizunean
(Ignacio Vegas Aramburu)

*
**

KOMUNIKAZIOA:

San Joan Ante Portam Latinam (Biasteri, Araba). Hezurrezko hondakinak dituen aztarnategi bati buruzko ikuspegi berria: indusketa, azterketa eta balorapena
(Jose Ignacio Vegas Aramburu)

*
**

COMUNICACIÓN:

Heridas de flecha durante la prehistoria en la Península Ibérica

(José Ignacio Vegas Aramburu-Francisco Etxeberria)

PROBLEMI DELLA CONTINUITA IN AMBITO RURALE FRA V E IX SECOLO. METODO DI INDAGINE E RESULTATI

Organizado por Seminario Archeologico di Monte Barro (Como, Italia). 9-11 de septiembre de 1991.

PONENCIA:

Nuevas propuestas sobre la Tardoantigüedad en los Pirineos occidentales

(Agustín Azkarate Garai-Olaun)

RESUMEN:

La intervención se centró en la nueva problemática generada en torno a la tardoantigüedad en los Pirineos occidentales a raíz de los últimos descubrimientos arqueológicos.

III SIMPOSIO SOBRE LOS CELTIBEROS. EL POBLAMIENTO CELTIBÉRICO

Daroca (Aragón), 2-5 de Octubre de 1991.

PONENCIA:

El poblamiento celtibérico en el alto valle del Ebro

(Armando Llanos)

IV CONGRESO INTERNACIONAL SOBRE LA ESTELA FUNERARIA

Organizado por Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos.

San Sebastián, 4-6 de Octubre.

COMUNICACIÓN:

Temas iconográficos en las estelas funerarias de la II Edad del Hierro en Álava: representaciones astrales, animales y humanas

(Idoia Filloy Nieva)

RESUMEN:

En esta comunicación, se lleva a cabo una recopilación de las estelas funerarias adscritas a la II Edad del Hierro localizadas hasta el momento en la provincia de Álava, entre las que se encuentran recientes e interesantes hallazgos inéditos. Sobre ellas, se realiza un estudio individualizado de cada pieza, con una breve labor descriptiva, centrándose en un estudio iconográfico, ana-

KOMUNIKAZIOA:

Gezi zauriak Iberiako Penintsulako historiaurrean

(Jose Ignacio Vegas Aramburu-Francisco Etxeberria)

PROBLEMI DELLA CONTINUITA IN AMBITO RURALE FRA V E IX SECOLO. METODO DI INDAGINE E RESULTATI

Monte Barroko Mintegi Arkeologikoak (Seminario Archeologico di Monte Barro) antolatua (Como, Italia), 1991ko irailak 9-11

PONENTZIA:

Nuevas propuestas sobre la Tardoantigüedad en los Pirineos occidentales

(Agustín Azkarate Garai-Olaun)

LABURPENA:

Azken aurkikunde arkeologikoek mendebaldeko Pirinioetako aro antzin-berantiarraren aurrean zabaldu dituen arazoei buruz ihardun zuen ponentziak.

ZELTIBERARREI BURUZKO III. SINPOSIUMA. BIZIGUNE ZELTIBERIARRAK

Daroca (Aragoa), 1991ko Urriak 2-5

PONENTZIA:

Zeltibeharren biziguneak Ebro ibaiaren goi arroan

(Armando Llanos)

HILARRIARI BURUZKO IV. NAZIOARTEKO KONGRESUA

Eusko Ikaskuntzak antolatua

Donostia, urriak 4-6

KOMUNIKAZIOA:

Gai ikonografikoak II. Burdin Aroko hilarrietan Araban: argizagi, animalia eta giza irudiak

(Idoia Filloy Nieva)

LABURPENA:

Arabian orain arte aurkitu diren II. Burdin Aroko hilarrien bilduma eskaintzen da komunikazio honetan eta, gainera, zehaztu dira horien artean egin diren aurkikuntza interesgarri ezezagunak. Hilarri bakoitzari buruzko azterketa zehatza burutu da eta, deskribatu ondoren, azterketa ikonografikoa burutu da. Zera esan liteke, hilarrietan ageri diren irudi mota desberdinak aztertu ondo-

lizando las representaciones en ellas identificadas, y que podrían clasificarse básicamente en astrales, animales y humanas, como imágenes simbólicas de la naturaleza y la vida. También se hace una sucinta contextualización arqueológica de las estelas estudiadas, como marco de referencia de su adscripción cronológico-cultural.

**

COMUNICACIÓN:

Iconografía de las estelas funerarias de época romana en Álava. Ensayo de identificación de los objetos representados

(Eliseo Gil Zubillaga)


ren: argizagiak, animaliak eta gizakiak dira, izadi eta bizitzaren sinbolo gisa, oinarrian ageri diren irudiak. Honez gainera, bere kontestu arkeologikoan aurkeztu dira azterturiko hilarriak, denboran eta kulturaren ongi kokatu ahal izateko.

**

KOMUNIKAZIOA:

Erromatarren garaiko hilarrietako ikonografia Araban. Irudikatutako objektuak zehazteko saioa

(Eliseo Gil Zubillaga)



